



ARGIA



PROTESTAK SENEGALEN *Zer dago matxinada berriaren atzean?*

26-31. orriak

#2.833 | 2023/07/16 | 4,00 €



**Amiantoaren
kontrako
neurriak European**

12 | OSASUNA



**“Jarrera politiko
aktiboa duen
lesbiana da bollera”**

16 | ANA JAKA



**Hedabideen papera
legeak piztutako
eztabaidetan**

32 | SOILIK BAIETZ DA BAIETZ

Nextcloud

ZURE NEGOZIOAK BEHAR DUEN BULEGO BIRTUALA

Zure erakundea eraginkorragoa izatea bilatzen baduzu eta informazioa modu seguruan gordetzea lehenesten baduzu, Nextcloud zure soluzioa da.



FITXATEGIAK



EGUTEGIA



BIDEO DEIAK




TXATA




KONTAKTUAK



APLIKAZIO GEHIAGO



Finantziatorik behar? **Kit Digital** diru-laguntza eskuratu ezazu.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | RUBEN SÁNCHEZ
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 39 | BIZI BARATZEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



12 | AMIANTOAREN LAUGARREN OLATUA

Urko Apaolazak ondutako Net Hurbil atalean irakur daiteke zein ikerketetan oinarrituta aldatzeaz den Europar Batasuna amiantoaren gehieneko kopurua eta laugarren olatua zerk eragingo duen: eraikinen zaharberritze lanek. Herritar guztiok gaude arrisku honen pean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ANA JAKA

“Lesbianon armairuratzea bikoitza da: sukaldeko armairuan nahi gaituzte”

Reyes Ilintxeta

26 | NAZIOARTEA

Senegalgo iraultzaren argi-ilunak

Maria Ortega

32 | FEMINISMOA | “SOILIK BAI DA BAIETZ”

Polemikatik harago, legeaz ezagutu beharreko puntuak

Leire Artola

36 | MENDIA | FELIPE URIARTE

“Mendizaletasunarekin eta musikarekin herria josi nahi dugu”

Irati Irazusta

44 | KULTURA | ANJEL LERTXUNDI

Tamainako aitortza

Gorka Peñagarikano

46 | KULTURA | ERAKUSKETA

Euri morea

Jone Alaitz Uriarte

52 | ARGI-KONTRA | ANNA JEREMIAS

“Kezkagarria da 8 urteko neskatilen lehentasuna argaltzea izatea”

Saioa Baleztena



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Leire Artola, Mikel Garcia, Ointza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartziandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Gerra

Honezkerok ez dago ezberdintasun ideologikorik Le Penen eskuin muturraren, Éric Zemmouren Errekonkistaren eta Alderdi Errepublikanoaren artean. Europan bezala, Frantzia ere populismo xenofobo eta koloniala hedatzen eta errotzen ari da. Horren erakusgarri ona izaten da erakunde publikoen indarkeriaren kudeatzaileen jarrera. Alliance eta Unsa Police dira Poliziaren sindikatu nagusiak eta oso argi mintzo dira: "Horda basati hauen aurrean ez da nahikoa lasaitasunerako deia egitea, inposatu egin behar dugu. Ezin ditugu gutxiengo biolento horien aginduak onartu. Parasito horien aurka borrokatzeko unea da. Gaur egun Polizia borrokan da, gerran gaudelako". Azal zuriko borreroak biktimizatzen nahi du, haren indarkeria klasista eta xenofoboa justifikatzeko. Frantziako banderaren atzean ez dago ez askatasunik, ez berdintasunik, ezta ahizpatasunik ere. Ertzetan bizi den gehiengoarentzat, bazterketa, arrazakeria eta utzikeria soziala dira Frantziari lotutako koloreak.

📷 E. BRONCARD / HANS LUCAS 🗡️ AXIER LOPEZ



VOLTE

POUR NAEEL

Euskarak "estatus juridiko berria" behar duela aldarrikatu du UEMAk

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ezinegon handia" sortu du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko udaletan Espainiako Konstituzionalaren joan den asteko erabakiak, euskalduntzean "atzera egiteko arrisku bizia" baitago. Horrez gain, "oldarraldi honek erantzun juridiko sendoa" behar duela nabarmendu, eta lege-esparru "eraberritu" batera "bideak bilatzeko" dei egin du.

"Nahikoa da. Nahikoa dela esatera etorri gara gaur UEMAKo udaletako ordezkariok". Hitz horiekin abiatu du UEMAK presazko agerraldia Usurbilen, uztailaren 6an Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erabakia ezagutu eta biharamunean. Madrilgo epaitegi horrek ebazti du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eragile eta ordezkari guztiek euskaraz dakiten udalerrietan, administrazioak barne mailan euskaraz funtzionatzeko "eskubide linguistikoak urratzen" dituela.

Eusko Legebiltzarrak 2016an gehien-go zabalarekin onartu zuen Tokiko Erakundearen Legea irauli du Espainiako

"Kutsu bereko epai bat baino gehiago jaso ditugu azkenaldian. Agerikoa da: euskara sustatzeko lege-zimendua higatzen ari dira auzitegiak"

Konstituzionalak, bertan onartzen baitzen udalek aukera dutela barne-dokumentuak -aktak, gai-zerrendak, hainbat irizpide eta tramite...- erabat euskaraz egiteko, betiere ez badago zinegotzirik euskaraz ez dakiela alegatzen duenik. Alegia, lege horrek, bereziki, herri txiki eta euskaldunei eragiten zien. Barne mailako dokumentuak ziren, eta ez zuen arautzen herritarrekiko tratua.

Konstituzionalaren erabakiaren atzean ultraeskuina dago, VOXek duela bi urte egindako salaketa. EAEko

Justizia Auzitegira jo zuen eta handik, epaitegi horrek, "inkonstituzionala" izan zitekeela zalantzati, Espainiako Konstituzionalera bideratu zuen.

UEMAk argi dio ez dela hutsetik abiatzen: "Gogoan daukagu duela urte batzuk UEMAKo udaletan zer nolako arazoak izan genituen honekin lotuta, aktak euskaraz egiteko debekuak, udalak UEMAn sartzeko trabak... Eta sententzia honek berriro garamatza orduko egoerara. UEMAKo udalen aurkako eraso zuzena da epaia. Eta ez gara hutsetik abiatzen: kutsu bereko epai bat baino gehiago jaso ditugu azkenaldian. Agerikoa da: euskara sustatzeko lege-zimendua higatzen ari dira auzitegiak".

"ELKARREKIN BAT EGIN BEHAR DUGU"

UEMAko udalerriak aztertzen ari dira uneotan epaiaren ondorio praktikoak zein diren eta ea zein urrats eman ditzaketan orain. "Gure asmoa da UEMAKo udalen euskalduntzean pausoak ematen jarraitzea, azken urte luzeetan egindako bidean sakontzea", nabarmendu dute agerraldian.

Baina "erantzuna behar du" egoerak: "Erantzuna, batetik, nahikoa dela esateko. Oldarraldi judiziala eten egin behar da".

Horrez gain, "erantzun juridiko sendoa" behar duela nabarmendu dute: "Higatzen ari dira urteetan hizkuntza-politikaren zimendu izan den lege-eremua, eta garaia dugu elkarlanean euskara sustatzeko lege-orubea egokitzeko. Azken epaien ondoren, hasiak gara pauso batzuk ematen, baina Auzitegi Konstituzionalaren azken ebazpen honek areagotu egin du horretarako premia. Egin dezagun bat, lor dezagun euskararen sustapenean urrats erabakigarriak egiteko lege-esparru eraberritu bat. Badago premia, badaukagu erantzukizuna. Bila ditzagun bideak". ●



Txotxo barrokoak libre




UXUE APAOLAZA LARREA

Zuk berrogeita bi urte dituzu? Ez du ematen"; "Ez, zu ez, zuk gazteagoa ematen duzu"; "lasai, ez duzu ama ematen"; "gehienez hogeitamapiku, berrogei ez duzu ematen"... eta ez daramat ondo komentario segida hori. Zerbait txarretik libratzen naute, hainbeste kosta izan zaizkidan nire urtetxoez. Erridikulutik libratu nahi naute: egin dezakezu parranda oraindik horrela jantzita. Ez dakite, gazte horiek, gaztetasuna gainetik kentzea zein dibertigarria izan daitekeen: erridikulua duintasuna baino adrenalinikoagoa da. Eta nire herriko pintada batez gogoratu naiz.

Nire herriko erdiguneko kiosko zahartu bat berritu dute. Kiosko horrek maiz janzten ditu herritarren hitzak, adierazpenak. Laranja zoragarri batez pintatu dute orain, eta Joxepa Zubeldia hernaniar bertsolariari eskaini zaio: haren hitzak daude orain zutabe eta hormetan. Margo berraren azpian geratu da nik gogoan dudana pintada: "Txotxo barrokoak libre!".

"Zer da barrokoa kasu horretan?" hasi ginen filosofatzen. Barrokoa da konplikatua: adinean aurrera konplexuagoak gara, zailagoak, ez hain hogei urtekoak. Barrokoa da barrokoa: ez da txotxo minimalista depilatu bat. Bihurguneak ditu, orbainak ditu, ezpaineak dantza egiten dute beren kabuz, argi-ilunak ile kizkurren artetik... Nire txotxoak 42 urte ditu, bihurguneak eta jakintzak, eta ez ditu gutxiago izan nahi. "Txotxo barrokoak libre". ●



ADUR

Literatura

Igela argitaletxeak gelditzea erabaki du, arrazoi ekonomikoak medio. Argitaletxeak 34 urteko ibilbidea osatu du. Enpresaren jabeek hilaren 10ean zabaldutako oharrean adierazi dute "bukatu" dela: "Etxe ttipi berriak eraiki beharko dira, beraz".

Zentsura

Iruñeko Herriko Tabernak bertan behera utzi behar izan du Sanferminetarako antolatutako egitarau kultural guztia. Gauzaren duen ekimen bakoitzeko 6.000 eta 60.000 euro arteko isun zigorrekin mehatxatu baitu Udaltzaingoa.

Palestina

Zisjordanian azken 20 urteetako eraso militarrik handiena egin du Israelgo Armadak, airez eta lurrez, Jeningo errefuxiatu kanpalekuan. Gutxienez hamar palestinar hil eta hamarnaka zauritu dituzte, Israelen arabera "talde terrorista baten" aurkako erasoan.

Berriz, berriztagarriak



ULA IRURETAGOIENA

Egin berri dut. Euskal Autonomi Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari alegazio herritarra sinatu eta igorri dut, Euskal Herria Bizirik plataformaren ekimena babestuz. Plataformak azpiegitura eta makro-proiektuen jarraipen zehatza egiten du, hauek landa eremuan duten ondorioak neurtzeko. Eta Eusko Jaurlaritza lantzen ari den dokumentu berria, parke eoliko eta eguzki-instalazioen kokapen posibleak aztertzen dituen, larria omen da, lokalizazio posible aunitzen aukera zabaltzen duelako.

Eolikoen etorreraren kezka piztu da. Azpeitian eta Zestoan herri mobilizazio garrantzitsua abian da eta Arabako Azazeta, Arkamo, Iturrieta, Labraza eta Aramaioko parkeen eraikuntzak bazterrak harrotu ditu. Eta gehiago etorriko dira. Europako funtsek norabide bat zehaztu dute eoliko eta eguzki-instalazioen alde eta eolikoen instalazioa geldiezina omen da. *As bestas* forma sarituak eolikoek landa eremuan sortutako egoera baten berri ematen du. Gurera ekarrita, landa lurra- ren egoera ikusita, nola uztartu energia berriztagarrien bidea eta dagoeneko zailtasun handiak dituen nekazaritza eta abeltzantzarena? Zein inpaktu du herriko bizitzetan, nagusiki hirietara joango den energia “garbi” honek?

Alegazioa sinatu dut, energia berriztagarrien aferan ez dugulako lurralde bezala eztabaidarik zabaldu, eta hirigintzako dokumentu berriak eredu bat zehazten duelako: eskala handiko instalazioena. Zenbat energia behar dugu eta nola burutzen da kalkulua, egungo eskaera mantentzearekin? Komunitate energetikoen autokontsumoa auzoetan, nahikoa estudiantu al da? Eolikoen instalazioa gertu izateak energiaren kudeaketa publikoa eta demokratizazioa ahalbidetzen dituela esan da, baina landaren eta ingurumenaren babesarekin talka egiten badu, nola soluzionatzen da ekuazioa? Nola definitzen da onargarria den inpaktua? ●



Turista ala diruduna

LEIRE ARTOLA ARIN

Udako oporraldiko “irteera operazioa” hasi da Euskal Herrian. Autoz, hegazkinez, bizikletaz, autokarabanaz, itsasontziz... baina kanpora, eta posible bada ahalik eta urrunen. Etxeko miseriak armairuan ezkutatu, maleta gurpilduna alboan hartu, eta “eguraldi ona” egiten duen tokiren batera alde egiteko dira oporrak, gehiengoari galdetuz gero. Noski, gehiengo hori da diru “inbertsio” edo “xahuketa” hori –nondik begiratzen den– egiteko gai den herritar multzoa.

Eta “irteera operazioa” orekatzeko edo, hona ere badatuz “bisitariak”. Autoz iristen dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara etortzen diren turisten %67, eta garraio kolektiboaren kasuan, hegazkina da erabiliena (%17,5), Eusko Jaurlaritzako Ibilturren 2022ko udako datuen arabera. Azken hori da, hain zuzen, garraioberdikerik kutsagarriena eta ingurumenerako kaltegarriena, gurutzatzearekin batera, Munduko Turismo Erakundeak eta Nazio Batuen Programak zehazten dutenez.

Atmosfair.de Alemaniako GKEak zehatz kalkulatu du zenbat karbono dióxido isurtzen den atmosferara hegazkin bidaia bakoitzeko: Bilbotik Mallorcara pertsonako 247 kilogramo CO₂, Miarrizetik Erromara 577 kilogramo, eta Iruñetik Filipinetara 7.320 kilogramo pertsonako –ez hegazkineko–. Hemen arrakala: lehen klaseko hegaldien kasuan, bikoiztu baino gehiago egiten da kutsadura. *The Guardian* egunkariaren analisi baten arabera, distantzia luzeko hegaldi bakoitzak isurtzen duen CO₂a da herrialde batzuetako pertsona bakarrak urte osoan isurtzen duen kopuru bera.

Beste kontu bat dira jet pribatuak. Uztaila hasieran *El Diario Vasco* egunkariaren albiste izan da Hondarribian 100.000 euroko jet pribatu bat lurreratu dela, “munduko garestiena”, New Yorketik zuzenean iritsia, “familia aberats” bat gura ekartzeko. 2022an Gipuzkoako aireportuak 913 hegaldi pribatu erregistratu zituen, orain arteko zifrarik altuena. “Turistifikazioa, elitizazioa eta kalte ekologikoa erakunde publikoen babesarekin eta DVren propagandarekin”, salatu du Bizilagunekin plataformak.

Nork egiten du kalte ekologikoa? Turistek? Multinazionalak? Geuk? Badago era jasangarrian bidaiatzeko modurik? Marka da gero, oporretan ere langile klasea klima aldaketaren eta turistifikazioaren arduradun sentitzea, aberaskumeak eta milioidunak jet pribatuak hartzen ari diren bitartean, egunpasak egiteko Donostiako su artifizialak ikustera edo Subijananren Akelarre jatetxean mokadua egitera, helikopteroa atarian aparkatuta. ●

40

milioi euro jasoko ditu Madrildik Urdaibaiko Guggenheimen proiektuak. Espainiako Gobernuarekin akordioa sinatu du Bizkaiko Foru Aldundiak.

2

urtetan Espainiako bankuek bikoiztu egin dute hipoteken bidez familiei kobratutakoa. 2021ean, mailegatutako diruaren %1,4 irabazten zuten batez beste; kopuru hori, 2023ko apirilean, %3,7koa izan da.

72

urterekin jubilatzea da Espainiako Enpresarien Zirkuluak egin duen proposamena. Enpresarien lobbyak dio pentsioen sistema publikoak "bost urte barru" kiebra ez jotzeko modua dela 68 eta 72 urte artera luzatzea erretiro adina. Hainbat tokitan eskuin muturrak darabilen diskurtso bera da.

"Dirua da Ertzaintzan dagoen gatazkaren muina, zenbait pribilegio kendu nahi diete-eta"

AITOR ITURREGI

Intsumisioa eta ekintzailea izan zen Iturregi. Ertzaintzaren izaera militarizatua askotan salatatu du.

ARGIA.EUS (2023-07-06)



"EUSKARA GAZTELANIAREN DIALEKTOA DA"

Gaztelania hutsean zegoen komuneko kartel bat euskaraz ere jartzeko proposatu zioten Bilboko Goiko Grill jatetxeko arduradunari, eta haren erantzuna izan zen "alemanez eta frantsesez ere" jarri beharko zukeela euskaraz ere jarri beharko balu. Euskara hizkuntza ofiziala dela esatean jazo zen eraso, euskara gaztelaniaren dialektoa dela esatea.

ARGIA.EUS (2023-07-04)

"Agroindustriarentzat pentsatu araudiak dira eta emeki-emeki hiltzen gaituzte"

PETTAN PREBENDE

Frantziako Estatuak hegazti gripearen aurrean bideratu aterabideak –hegazti guzien hilketa prebentiboak eta kabalak barnean atxikitzea– gogorki gaitzesten ditu ELB sindikatuak. Prebende laborariaren hitzetan, eredu agroindustrialia da oinarritzko arazoa.

ARGIA.EUS (2023-07-07)



NAZIOARTEA



IAEA

Tritioaren diplomazia

MIKEL ARAMENDI

Protestak protesta, Ozeano Bare-ra isuriko dira, pixkanaka, egunotan hasi eta urtetan iraungo duen operazioan, itsasikara batek sorrarazitako tsunamiak Fukushima Daiichi zentral nuklearrean 2011ko martxoaren 11n jazo zen hondamendiari aurre egiteko lanetan hamabi urte hauetan metatu diren erradiazioz kutsatutako urak (milioi bat metro kubiko baino gehiago). Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak bere azken ikuskapenean ontzat eman du isurketa, arriskua ez omen delako hainbestekoa eta munduko ozeano handiena den horretan diluitzen joango omen delako. Kritika ugari izan da, baina erabakia hartuta dago, eta isurketarako erabiliko den kilometroko hodia ere prest.

Erreaktore hondatuak hozteko erabilitako ur kutsatu horietan zeuden gai erradioaktibo kaltegarrienak araztu ondoren, arazo nagusia orain, diotenez, geratzen den tritioan eta karbono-14an legoke. Oso bereziki, lehendabizikoan. Hura araztea, ekonomikoki eta operatiboki ia ezinezkoa dela dio bertsio ofizialak; eta itsasora isurtzea, aldiz, ez dela horren arriskutsua, tritioaren semidesintegratio periodoa aski laburra dela-eta: 12 urte. Arazoa ez da makala, eta doktoreak izango ditu eliza ama santak, nik baino hobeto...

Baina gorabeherak badu zientifikotik zerbait baina politikotik asko

duen saihests bat. Isurketa printzipioz arbuizatzen duen mugimendu ekologista (Japonia bertakoa) ez ezik, hurbileko bi herrialde, Hego Korea eta Txina, haserretu baitira biziro. Eta itsas-ingurumari hartatik letorkeen arraiki guztien inportazioa eragozteko neurriak iragarri dituzte biek, hasteko.

Oportunismo hutsa? Ez pentsa. Edo, behintzat, ez litzateke haiena bakarrik izango. Arbuizatzaile horien zalaparta bezain adierazkorra izaten ari baita beste batzuen erabateko isiltasuna. Kanada eta AEBena, hain zuzen.

Japoniatik oso urruti daudela biak ala biak, esango du norbaitek; baina Ozeano Bareko Ipar Itsaslasterraren norabidea eta ezaugarriak kontuan hartzen dituenak berehala ikusiko du Fukushimatik abiatzen den ur-ttanta tritioduna lehenago iritsiko dela Ipar Amerikako kostaldera, Japoniako itsasora edo Txina ekialdekora baino. Dozena erdi bat urte beharko dituzte Fukushimaiko ur zikin horiek Amerika iparralderaino heltzeko, baina iritsiko dira. 1992ko gomazko ahatetxo haiek bezalatsu, baina batere nabarmendu gabe. Urdanetaren galeoiaren bide beretik.

Jakin badakite hori AEBek eta Kanadak; baina, hala ere, ez dute isurketaren aurka hitzik atera. "Indo-Pazifiko" ekimenean Japoniaren leialtasunak bazuen prezioa, non-bait. ●

Muga irekitzea

Tourraren antzerkia

IRUNGO UDALA / FOKU - GORKA RUBIO /
ANTXETA IRRATIA / IRUNGO HARRERA SAREA



IRUN-HENDAIA / 2021eko urtarrilean itxi zuen Frantziako Gobernuak Irun eta Hendaia arteko oinezko pasabidea. Erakundeek, elkarteek eta gizarte mugimenduek maiz egin dute irekitzeko eskaera, eta oraingo honetan baiezkoa eman zuen Frantziako Gobernuak, bi herrietako alkateek ospatu zuten gainera (eskuineko argazkian)... baina Tourra pasatzeko baino ez zen irekitze baimena (erdiko argazkietan, pasabidean ikusle andana, eta ondoko zubian txirrindulariak). Txirrindularien mundu mailako erakustaldia amaitu bezain pronto, berriz ere hesia eraiki dute, aurrekoa baino handiagoa gainera. Irun eta Hendaiaiko udalek deituta, salaketa manifestazioa egin dute. Hainbat elkartek deituriko beste manifestazio batean, muga ixteak migratzaileen bizitzak arriskuan jartzen dituela nabarmendu dute.



ZER DA HAUTS ZURI HORI? BADATOR AMIANTOAREN LAUGARREN OLATUA...

Europar Batasuneko erakundeek adostuta, amiantoaren inguruko zuzentaraua aldatu eta minbizia sortzen duen mineralarekiko gehienezko esposizio-maila murriztu dute ekainean. Horretarako, funtsezkoa izan da Nantesen Tripode izeneko eraikinean frantziar administrazioko langileek eramandako borroka. Baina Bruselak egindako kalkuluen arabera, Europan zaharkituriko milioika etxetan dugu zain hauts zuria. Neurriok nahikoak izango ote dira datorkigun olatu berriari aurre egiteko?

 URKO APAOLAZA AVILA

Bost, lau, hiru, bi, bat... eztanda lehor baten ondoren, behera dator hemezortzi solairuko eraikina, domino fitxekin egindako jostailuzko dorreen antzera. 2005eko otsailaren 27an gaude, Nanteseko irlan, Loira ibai ederretik gertu, eta ingurumarian milaka lagun bildu dira: amiantoaren kontrako borrokaren sinbolo handi bat jausi berri da euren begi aurrean.

Hiru ertzeko izar forma edukitzeagatik Tripode deitua, 1972an eraiki zuten etxetzarra Frantziako Gobernuak Atzerri Ministerioi, Estatistika Institutuko eta Ogasuneko bulegoak jasotzeko. Ordurako amiantoaren arriskuaren berri bazegoen, baina hala ere, suteen kontrako isolatzaile gisa erabili zuten arkitectoak asbestoa –amiantoari deitzeko beste modu bat– eraikinaren sabai guztietan. Denera 350 tona.

Hurrengo urteetan biriketako minbi-ziak ugalduta ziren langileen artean, eta gaixotasun profesional bezala aitortuak izateko bidegurutze aldapatsua hasi zuten. Esperientzia hori erabakigarria

**Azken azterketa
epidemiologikoen
arabera 31 lagun hil
dira Tripoden amianto
arnastuta, baina
sindikatuak diote askoz
gehiago direla**

izan da duela gutxi, ekainaren amaieran, Europar Parlamentuak eta Europako Kontseiluak amiantoaren kontra neurri zorrotzagoak adosteko.

“ALDE HORTIKI!”

Hogei urtez ia 1.800 lagunek egin zuten lan Tripoden –horietako asko administrari bezala aritutako emakumeak–, egunero euren mahaiak zikintzen zituen

hauts zuriarekin susmo txarrak hartuta. 1980ko hamarkadan sindikatuak eraikinean instalaturik zegoen amiantoaren inguruko informazioa eskatzen hasi ziren: “Entzun genuen asbesto mostrak hartu zirela eta emaitzak jakin nahi genituen”, esan dio Francis Judasek *HesaMag* aldizkariari. Europako Sindikatuen Institutuak (Etui) argitaratua, amiantoaren inguruko txosten garrantzitsua kaleratu du udaberri honetako zenbakian, eta Tripoderen kasua dakar xehe.

Nantesko amiantoaren inguruko elkarte intersindikaleko delegatua da Judas, eta prozesu hura barrutik bizi izan zuen: “Esan ziguten ez zegoela arriskurik, amianto kopurua estandar seguruen barruan zegoela”, dio. Baina erantzun xalo horrekin konforme ez eta beste toki batzuetan galdezka hasi ziren. Amiantoarekin arazo bera zuten Parisko Jusseiu unibertsitatetik ohar-tarazi zieten arriskuan zeudela. Halarik ere, Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziatik iritsi zitzaizen mezurik gar-biena: “Alde hortik!”.

1989 urtetik aurrera mobilizazioak azkartu egin zituzten: “Gure estrategia izan zen alarmak piztea, amiantoaren arazoarekin eta batez ere portuko ontzioletako langileen egoerarekin arduratuta zeuden hedabideek kasu egin ziezaguten”. Bai lortu ere! Bruselan Berlaymont eraikin ezagunetik 3.000 funtzionario ebakuatzeak asbestoa zuelako –gero eraberritu egin zuten eta gaur egun Europako Batzordearen egoitza da–, Tripodeko langileen ahalgina hauspotu zuen, eta azkenean gobernuko administrazioek instalazioak abandonatu zituzten 1993an.

Lehen heriotza 1995ean gertatu zen: hamar urtez Tripoden mantentze lanetan aritutako 40 urteko elektrizista bat. Biriketako minbizia. 1999an bigarren heriotza etorri zen, 43 urteko beste gizaseme bat. Honek ere biriketako minbizia. Azken azterketa epidemiologikoaren arabera gutxienez 31 lagun hil dira jadanik Tripoden amianto arnastuta, baina sindikatuek diote askoz gehiago direla.

Hemezortzi urte igaro dira 2005ean Tripode eraitsi eta Europar Batasunean amiantoaren erabilera erabat debekatu zela. Tamalez, oraindik ak-

tualitate beteko gaia dugu, amiantoak hor jarraitzen duelako ikusezin, eraikin eta birika askotan.

ZER DIRA 10.000 ZUNTZ AMIANTO?

Joan den urteko irailaren 28an Europako Batzordeak proposamena plazaratu zuen, amiantoaren inguruko zuzentaraua aldatu eta baimendutako amianto-esposizioaren gehienezko kopurua zentimetro kuboko 0,01era mugatzeko. Hau da, gehienez ere metro kubo batean 10.000 zuntz amianto egotea lantegietan.

TRIPODE

2005eko otsailaren 27an eraitsi zuten Tripode, 18 solairuko eraikina, aurretik 350 tona amianto kendu ondoren. Nantesen kokaturiko frantziar administrazio bulego horietan, hauts zuria eguneroko sumatu zuten langileek urte askotan.

NANTESKO ONDAREA



Baina Tripodeko azterketa epidemiologikoak erakusten du minbizia-rekin hildakoak metro kuboko 3.000 zuntz artean aritu zirela lanean. Francis Judasek ahobizarririk gabe hitz egiten du *HesaMag* aldizkarian: “Europako Batzordeak proposaturiko mugarekin, arriskua dago Tripodeko esperientzia katastrofikoak errepikatzen Europa mailan. (...) Metro kuboko hamar mila zuntzeko muga jarrita, milaka langile heriotzara kondenatzen ari gara amiantoagatik”.

Etui institutuko ikerlari Tony Musuk datu zehatzak eman ditu aldizkari berean. 10.000 zuntzeko proposamena egiteko, Substantzia Kimikoen Europako Agentziaren estimazioetan oinarritu da Europako Batzordea. Honen arabera, muga horren barruan amiantoarekin esposizioan egondako 100.000 langiletik 12 soilik hilko lirateke gaixotuta. Baina Musuken ustez agentzia horren estimazioak ez dira fidagarriak eta, Nantesko kasua ikusita, benetan 1.727 lagun hilko liratekeela dio, ehun aldiz gehiago. Sektoreko lobbyak ari omen dira presionatzen langa hain goian uzteko, *Les amiantés du Tripode* (“Tripodeko amaintoa”) elkartearen esanetan.

Sindikatuaren eta amiantoaren biktimen salaketan ondotik, pasa den apirilean Véronique Trillet-Lenoir europarlamentaria egindako txosten bat onartu zuten Estrasburgoko ganberan, botoen %84ko babesarekin. Txostenak kontuan hartu du Tripoden egindako azterketa epidemiologikoa, eta beste neurri batzuen artean, muga askoz zorrotzagoa ezarri beharko litzatekeela dio, hamar aldiz txikiagoa ezarri ere: metro kuboko 1.000 zuntz baino ez. Orain Europako Kontseiluarekin adostasunera iritsi dira eta aldaketa onartzeko tramitean dira.



CGT SINDIKATUA

BORROKAN Tripode eraikina behera bota bazuten ere, han lan egindako 1.800 langileen borrokak ez du etenik izan, haien artean sortutako minbizi ugariak gaixotasun profesional bezala aitortuak izateko.

Laugarren olatua nabaritzen hasiko gara laster, amiantoarekin inolako lan harremanik izan ez duten herritarrei eragingo diena: “Hurrengo bi hamarkadetan heriotza kopuruak gorantz egingo du”

ETXEBIZITZA BATEAN 1,6 KILO AMIANTO

Baina europar erakundeek aitormen askoz kezagarriagoa egin dute horrekin batera: ez dago amiantoarekiko esposizio maila segururik. Eta kontuan edukita Europar Batasunean (EB) eraikinak birgaitzeko dauden egitasmoak, are urduriago jarri direla dirudi.


Renovation Wave (“Berritze olatua”) planak Europako milioika eraikin efizienteago egin nahi ditu energetikoki 2050. urtera arte, “klima neutraltasun” ditxosozkoa lortzeko. Kalkulatu dutenez 220 milioi eraikin daude Europen 2005ean amiantoaren erabilera debekatu aurrekoak, eta beraz aukera handia dago horietako asko mugitzen hastean mineral kantzerigenoarekin topo egiteko.

Europako Batzordearen enkarguz 2023an argitaraturiko ikerketa batek eskualdeka egin du kalkulu hori: Araban etxebizitza bakoitzeko 1,16 kilogramo amianto omen daude batez beste, Iparraldean 1,6 kilogramo... Baina badira askoz okerrago daudenak, Letoniako toki batzuetan 5,61 kilogramo neurtu dituzte etxebizitzako.

Horrek, noski, nabarmen eragingo die eraikuntzako langileei. Europako Batzordearen arabera 7 milioi lagun egon litezke amianto-esposizio arriskuan, eta iturri berak dioenez, 2031 arte kopuru hori %4 haziko da urtero. Beste datu pare bat, hauek Euro-



LAU OLATUAK Amiantoaren hasierako bi olatuak –erauzketa eta instalazioa– pixkanaka igarotzen ari garen bitartean, hirugarren olatuan gaude eta batez ere laugarren olatua espero dugu orain.



220 MILIOI ERAIKIN Europar Batasunean eraikin ugari 2005ean amiantoa debekatu aurretik eraikitakoak dira eta horietako askotan amiantoa dago. Egindako kalkuluek diote Letoniako eskualdeetako etxebizitzetan dagoela amianto gehien, baina beste eskualde gehienetan ere kopuru oso altuak daude.

tatek emandakoak: laneko minbizien %78 amiantoak sortzen du, eta 2019an 90.000 lagun hil ziren horren erruz Europan. Halako estatistikak egiteko aukerarik ez duten beste kontinente batzuetan askoz gehiago izango dira, jakina.

LAU OLATU ETA HERIOTZA TSUNAMI BAT

Gauzak horrela, inork ez du zalantzarik amiantoak eragindako asbestosi eta mesotelioma kasuen olatu berri bat datorkigula, aurrekoei gainjartzen ari dena. Tony Musukek *HesaMag*-en azaltzen duenez, amiantoak lau olatu sortu ditu munduan.

Lehen olatua minerala erauzi zuten meatzarien artean izan zen; bigarrena, amiantoa industriarako erabili edo instalatu zuten langileen artean (elektризistak, mekanikariak, zurginak...); hirugarren olatua eraikuntzen konponketak eta amiantoa kentzeko lanak egin dituztenak sufritzen hasiak dira; eta azkena, amiantoa duten eraikinen hondatzeak eragingo du, eta biztanle guztiak gaude horren arriskuan gainera.

“Gaur egun ikusten ari garen asbestoaren ondoriozko minbiziak aztertuta, esan dezakegu seguruenik hirugarren olatukoak direla, lehen olatuaren amaierarekin eta bigarrenaren gainbeherarekin konbinaturik”, dio Musuk.

Eta iragarpen bat egin du: laugarren olatua nabaritzen hasiko gara laster, amiantoarekin inolako lan harremanik izan ez duten herritarrei mesoteliomak atzemango baitzaizkie. Hala, “hurrengo bi hamarkadetan heriotza kopuruak gozantz jarraituko du”.

Horren osasun kostuak eta drama imajinatzen ditugu, baina kostu ekonomikoak ere eragingo dituzte laneko minbiziek Europan: 230.000 eta 610.000 milioi euro artean –EBko Barne Produktu Gordinaren %1,8 eta %4,5 lirateke, hurrenez hurren–. Agian diruaz hitz egiten hasita hobeto ulertzen da europar erakundeek harturiko erabakia. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Evil Eye

Ana Jaka

BOLLERA ETA MARIMATRAKA



LESBIANON KASUAN ARMAIRURATZE SAIAKERA BIKOITZA DA: SUKALDEKO ARMAIRUAN SARTU NAHI GAITUZTE



Ekainaren 28ko Harrotasunaren egunaren kariatara E28 Plataformak Idazketa Erotiko tailer bat antolatu zuen Iruñean, Ana Jaka idazle eta disidente sexualak eman behar zuena. Udalari erotiko hitza ez omen zitzaion gustatu eta dirulaguntza kendu zioten. Tailerra eman zuten, hala ere, eta arrakasta handiz gainera. Kontraste handiko Iruñea honetan bizi da idazle bollera, Opuseko unibertsitatean kazetaritza ikastera etorri zenetik.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Kazetaritza ikasi zenuen, baina kazetari gisa lan egin duzu inoiz?

Iruñean, Opuseko unibertsitatean ikasi ondoren Madrilera joan nintzen *Expasión* egunkarian praktikak egitera. Andoaingo telebistan eta Pasaiko irrati batean ere ibili nintzen eta kolaborazioak egin ditut Euskalerrria Irratian eta *Berría*-n, baina profesionalki ez naiz inoiz aritu kazetari moduan. Ikasketak amaitu ondoren berehala hasi nintzen Elkarreko ikas proiektuen sustapenean.

Zer egiten duzu zehazki?

Lehen liburuak saltzea zen gure lana, baina orain gehiago da ikas proiektuak proposatzea.

Euskal Herriko mapekin kontuz ibili beharko duzue Nafarroan...

Hemen Nafarroan beste gauza askotan ez dute arreta jartzen, baina mapetan bai. Azken urteetan lasaiago bizi izan gara, baina urte latzak izan ditugu horren kontura. Noizean behin errepikatzen den kontua da. Batzuetan Gizarteko liburuetan jartzen dute arreta eta besteetan Eus-

karakoetan, hizkuntza mapak, mapa politikotzat hartuz. Iruñean bizitzea niretzat kontraste handiko tokian bizitzea da eta hori interesgarria iruditzen zait.

Dena den, mapen kontrol horrek zuen lana baldintzatzen du?

Neurri batean bai, ikasleengana iristeko bideak aldatzen direlako. Ez da gauza bera gobernuak liburu bat ordaintzea doakotasun programaren barruan edo ez. Gobernuak ez badu laguntzarik ematen argialetxeak bere kabuz beste hainbat neurri hartzen ditu liburu horri bidea



Ana Jaka Garcia

ANDOAIN, 1973



Idazlea eta disidente sexualen kolektiboko aktibista. Kazetaritza ikasi zuen Iruñean eta kultura sustatzaileria da Elkar Taldean. *Mero amor*. *Línea discontinua* poema liburua, *Ez zen diruagatik* eleberria eta haurrentzako *Ixon*, *Marimutilla naiz, eta zer?*, *Loaren inbasio isila* eta Marimatrakak bildumaren hamaika titulu idatzi ditu, besteak beste.

irekitzeko, deskontuak, esate baterako. Eta irakasleen aldetik ere zaila da proiektu bat aurrera eramatea halako presioa gainean izanda.

Kultura eragilea izateaz gain, kultura egilea ere bazara. Nola hasi zinen idazten?

Txikitatik idazten ditut poemak eta ipuinak eta hainbat lehiaketetan parte hartu izan dut. Idazle bezala Nafarroan garatu naiz, hemen hasi bainintzen literatur tertulietan parte hartzen eta lehen poemak argitaratzen.

Mero amor. *Línea discontinua* olerki bilduma bikoitza izan zen argitara eman nuen lehen liburua Bilaketa sariari esker. Orduan hasi nintzen benetasinesten nire gaitasunean.

Maitasun istorio gogor bat da lehena eta bigarrenak errepideko marrei egiten die erreferentzia, aurrera jarraitu behar dugula esanez, nolabait.

Izen bereko bloga ere sortu nuen garai hartan, niretzako poemak errepideko marra txiki horiek modukoak baitira.

Lehen liburua eta bloga gaztelaniaz egin zenituen. Zergatik?

Poesia idazten hasi nintzenean euskaraz ez nekielako. Eskolan A erduan ikasi nuen eta etxean ez genuen euskaraz egiten. Nerabezaroan hasi nintzen interes handiarekin ikasten, liburuak irakurtzen, kanpaldietara joaten... Ikasle garaian Elkarreko biltegian hasi nintzen lanean uda sasoietan, Joseba Jaka osabak bultzatuta. Bere helburua zen gu, ilobak, udan hara joatea euskaraz trebatzeko. Interes handia zuen eta *Egunkaria*-ko harpidetza ere oparitu zigun, adibidez. Garai hartan ez nintzen horren kontziente, baina orain oso eskertuta nago horregatik guztiarengatik.

Hurrengo lana *Ez zen diruagatik* euskarazko eleberria izan zen.

Bai. Irakurle bezala nobela da gehien irakurtzen dudana eta beti neukan eleberri bat idazteko ametsa.

Erabaki nuen euskaraz egitea. Froga bat egin nuen eta ikusi nuenez gai

nintzela aurrera egin nuen. Oso ahaldunduntzaileria izan zen niretzat eta Elkar bezalako argitaletxe handi batek zure lana plazaratzeak beste dimentsio bat ematen dizu.

Orain Marimatrakak bildumako hamaikagarren liburukia atera duzu, *Gora Sanferminak! Nolakoa da bilduma hori?*

Marimatrakena oso proiektu sendoa iruditzen zait eta haur askorengana iristen ari da. Marimatrakak umeak dira eta umeek, printzipioz, bihurriak izan behar dute. Halakoak dira. Nik uste dut haurrek guk uste duguna baino gehiago dakitela eta gaitasun asko dutela. Ez dute guk bezainbeste aurreiritzirik. Horregatik ipuin hauetan askotan ikusten dira haurrak gai desberdinak naturaltasun osoz hartzen, helduak barregarri geratzen diren bitartean. Gustatzen zait kontraste hori erakustea idaztean.

Leena Krohn idazle finlandiarren *Tainaron* liburua asko gustatzen zait. Hor agertzen da pertsonaia bat oso zaharra, baina irakurlela ohartzen da gazte izaten jarraitzen duela. Aldi berean da haur, gazte eta zaharra eta oso hausnarketa polita egiten du adinaren inguruan. Nik ere uste dut denok dugula barruan izan ginen haur hura eta, era berean, haurrek barruan dutela gero izango diren heldu hori. Adina oso subjektiboa da.

Haurrentzat idaztean halako gauzak esperimentatzeko aukera izaten dut eta asko gustatzen zait.

Zer lortu nahi duzu zure aktibismo literarioarekin?

Saiatzen naiz gure gizartearen eredu monolitikokoak apurtzen eta familia eta harreman mota desberdinak erakusten. Marimatrakena amak beste bikoitekideak izan ditu aitarekin egon baino lehen eta amona maitemindu da adinean aurrera joan arren, adibidez.

Marimutilla naiz, eta zer? izan zen haurrentzat idatzi nuen lehen lana eta beti esaten dut bereziki maite dudala protagonistarekin identifikatzen naitelako, nahiz eta niri futbola ez gustatu eta hari bai.



Zu ere marimutila sentitzen zinen?

Bai, eta sentitzen naiz. Txikitan hala deitzen zidaten irain moduan, baina denborekin ahalduntzen zara eta hitz horiek zeure egiten dituzu. Orain zerbait polita bezala, bandera bezala, eramaten ditut hitz hauek.

Harrotasunak zentzua baldin badu, hori da lehenago mespretxua sentitu dugulako. Egoera mingarri batetik ateratzeko egiten den ariketa da. Hori azaldu behar den zerbait da, bestela jende askok ez du ulertzen zergatik harrotasunaren garrantzia. Disidente sexualen harrotasuna ez da ezer inposatzeko saiakera, bizirauteko modu bat baizik.

Gure historia, disidente sexualen bizitza, nahiko triste da mespretxuak, zigorrak eta askotan isiltasuna ere pairatzen ditugulako. Agian horregatik behar dugu gure aldarrikapenak hain koloretsuak izatea, banderak, dragak... horrelakoak behar ditugu egoera orekatzeko pixka batean. Borroka bai eta jaia ere bai.

Harrotasunaren egunaren mezua hortik doa. Batzuetan esaten digute friboloak garela, baina hori ez da kasuala. Dantzatu eta ongi pasatu behar izatea da horren arrazoia, baina horrek, hala



Azken hitza

ALIATUAK

“Iruñeko Udalak zentsuratu zuen nire Idazketa Erotikoko tailerrarekin gertatu dena ikusita, nik garbi dut zeintzuk diren gure aliatuak: *Berria*, Euskalerria Irratia, ARGIA, *Ahotsa*... hau da, hedabide euskaldunak bereziki. Euskal munduaz maiz esaten da oso patriarkala izan dela eta hala da, baina azken urteotan aliatu naturala izan dugu, zalantzarik gabe. Bertsolari lesbianak, bertso saio bolleroak, sormen lan disidente asko, pentsamenduaren alorrean Lisipe bilduma... badira ekimen asko oso interesgarriak”.

ere, ez dio seriotasuna kentzen aldarrikapenari.

LGTBI+ kolektiboko kideen aurkako jarrera negatiboak eta erasoak, aldiz oso ohikoak dira

Nik zuzenean ez dut sufritu eraso zuzenik, baina badira beste modu batzuk, soti-lagoak, bazterkeria sufritzeko, isiltasuna adibidez. Marimutil eta lesbianak orokorrean isiltasunera kondenatu gaituzte askotan. Zirimiria bezala hor beti gainean duzun zerbait da eta eragiten dizu.

Gizarteak gurekin ez ikusiarena egiten du askotan eta horrela oso zaila da zure nortasuna argi edukitzea. Ez badakizu zu nor zaren, besteak bezalakoak izaten saiatzen zara, inguruan dituzun ereduak hartuz. Bide nahasgarri eta ilunetatik abiatzen zara. Ez dakizu oso ondo zer egin eta nik hori bizi izan dut gaztetan. Horregatik esaten dugu oso garrantzitsua dela haurrei erreferenteak ematea errealitatea ezagutu dezaten. Orain, zorionez, erreferente askoz ere gehiago dituzte.

Nola dakusazu etorkizuna?

Legeari dagokionez eskubideak lortzen

ari gara hainbat tokitan eta beste estatu batzuetan atzera goaz, baina,aldi berean, gorroto ekintzak eta diskurtsoak gora doaz lotsarik gabe mundu osoan. Hori horrela da. Ikaragarriak iruditzen zaizkigun gauza asko gertatzen ari dira. Heziketa oso garrantzitsua da eta hedabideek izugarriko garrantzia daukate. Komunikabide batzuk min handia egiten ari dira halako diskurtsoei tokia eginez, audientzia handiagoak izateko helburu hutsarengatik.

Ez dakit, egia esan, jendea gero eta tuntunagoa den edo tontotzen ari ote den hainbeste pantaila ikusita, baina gauza batzuk ezin dira ulertu.

Bizitzak abiadura handia hartu du eta geroz eta denbora gutxiago dugu pentsatzeko. Ni oso kezkatuta nago.

Harreman lesbikoak makilatzen saiatzen da gizartea, oro har?

Emakumeekin beti egin izan da hori. Arautik kanpo dagoenaren ukazioa gizaratearen estrategia bat da, disidentek arauetara birbideratzeko. Lesbianon kasuan armairuratzeko saiakera bikoitza da: sukaldeko armairuan sartu nahi gaituzte.

Askotan lesbianeiei nortasuna ukatu egiten zaigu esanez "beno, oso lagun onak dira" edo norbaitek esaten duenean bisexuala dela, zerbait pasakorra balitz bezala hartzen da. Modak direla esaten da askotan, garrantzia kenduz bezala. Behin eta berriro ibili behar duzu armairutik ateratzen. Jendeak galdetzen dizu zergatik ibili behar duzun beti gauza hauek aldarrikatzen eta nik sentitzen dut esan beharra dudala, bestela ez naizelako existitzen. Eta existentzia falta zigor handia da eta sufrimendu asko eragiten du.

"Mariokerrak, nola esan/izan bollera euskaraz" proiektuan parte hartu duzu. Zer da?

Zinegoak zinema jaialdian proposatu zen lan bat egitea euskara eta disidentzia sexuala lotuz, eta Amaia Alvarez Uria eta June Fernandez Casetek proiektu hori abiatu zuten euskararen eta lesbianen

komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertzeke. Hasieran hiztegi bollero bat egitea zen asmoa, baina gero elkarrizketa batzuk egin ziren eta sormen lanak ere gehituz joan ziren.

Hiztegi bolleroan hitz asko gaztelaniatik eta ingelesetik hartuak dira, beste batzuk euskarazkoak eta gutxi batzuk gure asmatutakoak. Nik, adibidez, bat proposatu nuen, asko gustatzen zaidana: hankapott, hankarekin beste pertsonaren hankartea igurztea da, eta praktika lesbiko horri ikusgarritasuna emateko balio dezake.

Ariketa bezala polita da hitzak asmatzea. Hitzak asmatzean errealitateak ere izendatzen eta jendeari horren berri ematen diozu, edo agian probatzeko gogo ere bai.

Bollera hitza nola esaten da bestela euskaraz?

Badira modu batzuk: soropil, piperropil, kuku... baina Euskal Herrian aktibiston artean bollera oso hedatua dago, lesbiana edo jarrera politiko aktiboa duen lesbiana adierazten duelako. Lesbiana, aldiz, emakumeak gustuko dituen emakumea litzateke, besterik ez.

Hausnarketarako bide asko zabaltzen da proiektu honetan, eta hori oso interesgarria da.

Bollera irain modua erabiltzen da askotan, ezta?

Bai. Marimatraka edo marimutilla bezala. Irainitzeko edo patologizatzeko erabili izan diren hitzak gure egiten ditugu, ahalduntze prozesu batean. "Zuretzako txarra dena guretzat ona da" esanez bezala, eta horregatik "lesbiana naiz, bollera naiz, marikoia naiz, marika naiz"... ozenki esatea jarrera iraingarri horri buelta ematea da.

Ekainean Iruñeko Udalak zuk eskainitako Idazketa Erotiko tailer bati dirulaguntza kendu zion. Hitz garrantzia adierazten du horrek. Ezkutuko zentsura bide bat erabili dute.

Ez dute ekitaldia debekatu, baina dirulaguntza ukatu diote. Nire ustez, hitz hori horren modu argian ez agertzea nahi zuten. Ziur nago literatura "pikante" edo "anitza" erabili izan bagenu ez zela batere arazorik egongo.

Nik uste dut hitz batzuk ez dituztela ikusi ere egin nahi. Harritzekoa da. Erotiko hitza, gainera, eufemismo moduan erabiltzen da askotan pelikula edo narrazio batzuen inguruan solas egiterakoan.

2020an *Orgasmo arrakala* izeneko hitzaldia ere zentsuratu zion Udalak Paola Damontiri orgasmo hitza agertzen zelako.

Literatura erotikoen tailerrak nolakoak dira?

Praktikoa da, batez ere. Nik nahi dut jendeak idatz dezan eta egiaztatua daukat hori dela jendeak nahi duena. Ematen diezu aitzakia bat idazteko eta izugarri askatzen dira.

Parte hartzaileei proposatzen diet pentsatzea zer une suertatzen zaizkien kitzikagarriak eta gero testu horiek, errespetu osoz, partekatzen ditugu. Jolasen bidez sortzen dira istorioak. Nik laguntza txiki bat ematen diet irudimena askatzen joateko, eta azkenean iristen dira eszena erotikoa txiki bat egitera.

Zein da aldea pornografiaren eta erotikaren artean?

Nik ez dut oso garbi. Uste dut erotika hitza leunagoa dela eta agian ez digula ekartzen horren irudi genitala, baina ez dut desberdintasun handirik ikusten. Kulturalki agian pornoa esplizituagoa da.

Tailerrera etortzen den jendeak batzuetan oso eszena pornoak idazten ditu eta hori ere oso ongi dago. Pornoaren inguruan aurreiritzi asko dago eta nire ustez kritikoa izan behar dugu, baina bazterrean utzi gabe. Kritikoki hausnartu, erabaki kontsumitu nahi dugun ala ez, pentsatu zergatik egiten dugun eta zer iruditzen zaigun ongi eta zer ez. Kritikoa izan behar dugu beti, baina irekiak ere bai. ●

BABESLEA:

✓ 305.000 biztanleko lurgune euskalduna
 ✓ 101 udal

arnasa gara
euskaraz gara

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".
Jon Maia Soria

UOMA
100 +
euskaraz gara



Teknologiak konpondu zain

Aldaketa klimatikoaren aurrean jarrerera aunitz daude. Lehenak ukatzen dutenak dira, alegia, diotenak klimak betidanik izan dituela aldaketak eta orain gauzatzen ari den fenomeno ezin dugula bereizi lurraren milioika urteetan eman diren ziklo gorabeheratsuekin. Baina ez dute kontutan hartzen aldaketa horren abiadura, Industria Iraultza hasi zenetik aldaketa arras bizkortu baita.

Bigarren jarrera aldaketa onesten duten pertsonak osatzen dute eta, diotenez, teknologiararen erabilera irmoak konponduko omen du klimaren aldaketa. Horretarako inbertsioak bizkortu behar dira beroketa galgatze aldera. Inbertsio horiek bideratu behar dira hainbat sektore ekonomikotara, non bero efektua sortu eta hedatu egiten baita. Sektore ekonomiko horiek energia fosilen berriztagarriak ez diren kontsumoarekin lotuta daude, batik bat garraio sistemarekin. Eta sektore horiek kontsumo murriztu dezaten klima aldaketa geratze aldera, teknologia egokituaren erabilera determinantea izango da. Hor bi sektore aipatuko ditugu: Auto Elektrikoa (AE) eta txipen industria.

Uste zen AEren erabilera klima aldaketa gelditzeko lanabes egokia izango zela, halere, eskarmentua areagotu ahala, bere erabilerak optimismoa apaldu besterik ez du egin. Izan ere, AEren oinarrizko osagaia bateria da eta hasi bere iraupenetik eta kargatzeko zailtasunak gaudituko arte, arazo mila daude. Izan ere, bateriak

Auto elektrikoek apenas kutsatzen duten hiri barruan, baina litioa beharrezkoa dutenez, meategietatik erauztean izugarritzko hondamendia eta kutsadura sortzen dira

ekoizteko, batik bat litioa oinarrizkoa da, eta munduan zehar oso gutxi aurkitzen da, nahiz eta orain sodioa bere ordezkio izateko itxaropena dagoen –elementu hori soberan dago–. Halaber, AEek, garestiegiak izateaz gain, biziraupen laburrerria dute. Horregatik, gasolinak edo gasolioak ematen dituen prestazioak paregabeak dira eta ondorioz, ohiko ibilgailuen salmentek elektrikoek baino handiagoak izaten jarraitzen dute; ordezkapena uste baino astiroago doa.

AEek apenas kutsatzen duten hiri barruan, baina litioa beharrezkoa dutenez, meategietatik erauztean izugarritzko hondamendia eta kutsadura sortzen dira. Eta behin bateriak aldatzen direnean, oso zaila izaten da birziklatzea. Beraz, AEen bidez hirietatik kutsadura aterako dugu, baina aurretik meategi inguruetakoz baz-



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

terrak kutsatuta utziko ditugu hirugarren munduan. Beste behin, gure oparotasun eta ongizatearen ondorioak.

Gaur egungo aurrerapen teknologikoa txipen industriarekin lotzen da eta horretan, buru-belarri, asiarrak herrialdeak dabilta, batik bat Txina, Taiwan eta Hego Korea, nahiz eta horiek ere litografia makinak menpe dauden, Herbehereak baitira makina horien aintzindari. Lehiaketa honetan garaile izate aldera, AEBek eta EBk txipen ekoizpenerako estrategia berantolatatu dute, batik bat Txinaren garapen ekonomikoa ahultzeko xedearekin.

Horrela, inbertsio publiko-privatu erraldoiak egiten ari dira, eta proiektu horietan diru publikoa erruz erabiltzen ari dira. Adibidez, Frantziako Estatuan, Grenoble inguruan, txipak ekoizteko lantokia eraikitzen ari dira, leku aproposa delako eta ura ere egokia. Baina proiektu horrek elektrizitate eta ur kontsumo handia eskatzen du, Grenoble (160.000 biztanle) bezalako hiri batek bezainbeste xahutuko duelako. Beraz, aldaketa klimatikoak ur eskasia sortzen duen bitartean, aldaketa horri aurre egiteko teknologia berrituetan ur andana erabili behar da. Kontraesan latza!

Hirugarren jarreraren arabera, desazkunde ekonomikoa defendatu eta burutu behar da. Gure planeta mugatua da eta natura baliabide oro amaitzear daude, gure ondorengoen kaltetan. Haatik, lehenbailehen desazkunde prozesu adostua abian jarri behar da, berantegi ez dadin izan. ●

Espainia gure arazoan iturburua baldin bada...



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Nola pentsatu dezakegu izan daitekeela gure arazoan soluzioa?

Eta horren harira, nolatan da posible euskal politikariak Espainiako Kongresuan egon nahi izatea? Edo kezgarriagoa dena, nola da posible oraindik horiek euskal herritarren bozkak, sinesgarritasuna eta konfiantza edukitzea? Zer esango dizuet, ni ezin sinetsita nago. Auzo lotsa.

Noski, independentziaz ari naiz, gure estatua berreskuratzeko nazio-estrategiaz, burujabetzaz, hori zen-eta gure arazoa, ez? Espainiarren (eta frantsesen) okupazioa gainetik kentzea, zapalkuntza eta abar, ez dakit gogoratzen zareten, aditu ere egiten ez diren ideiak bilakatu dira-eta. Hau tristura.

Oraindik ere. Denetarik egin digutenean, mila aldiz, mendeetan zehar noski, baina azken 50 urte hauetan ere zehazki, diktaduraren *kanbiazoa* egin eta demokraziaren ziria sartu ondotik ere, zer jaso du Euskal Herriak amua ederki irentsi eta hor parte hartzearen truke? Ez al dugu oraindik ikasi hor ez dagoela biderik? Beno, bai, egon badago, baina asimilazioarena, integrazioarena, gure printzipioen galerarena, desintegrazioarena. Enfin.

Espektakulu negargarria ematen dugu. Espainiak egiten dizkigun bidegabekeriez behin eta berriz asaldatuta, horiengandik besterik espero ahal balitz bezala oraindik harrigarriki harrituta, baina pasteleo penagarri etengabea gero indar espainolekin. Niri honezkero ja-



PAULA ESTÉVEZ

sanezina egiten zait hain errazki kolaboraziorako eskaintza bilakatzen den herriaren biktimismo errepikakor eta inozo hori. Higuinaria.

Jokoan beste kontu batzuk ere badirela esanez etorriko da baten bat, eta horregatik bakarrik bada ere, parte hartu beharra dagoela Espainiako Kongresurako bozetan. Bada, ados, doazela hori uste dutenak, baina ez daitezela gero betiko matrakarekin negarrez etor, oso gaiztoak direla, adostutakoa ez dutela bete, begian pixa egin digutela, eta bla bla bla. Eta, ba al dakizue zergatik? Bada, zuen bozka bakoitzak legitimatu egiten duela okupazio-erregimen inperialista, sekula egin beharko ez geniokeen aitor-tza demokratikoa halaxe emanda. Tori, hemen duzu, opari.

Xede horren bila konbokatzen gaitu Espainiak espainolentzat baino behar ez luketen hauteskunde orokor horietara. Gure parte hartzeak mendeko herri okupatuaren zilegitasuna dakarkielako, eta goitik behera iraultzen duelako gure harremanari buruz ematen den irudi publikoaren nolokotasuna: menderatzaile-menderatu izatetik, erkide izatera. Estatu menderatzaile eta menderatu baten arteko gatazka nazioartekoa izatetik, estatu barneko kontu huts izatera. Estatu okupatu baten kategoria edukitzetik, espainola den baina hala izateari utzi nahi dion nazio ahul bilakatzerara. Espainolek berek ere ez zuten irudikatuko horrelako jokaldi borobila, hain prezio merkean lortzea beren izaeraren zuritzea.

Ni ez bainaiz espainola, ez dut Espainiako Kongresurako bozetan parte hartuko, kitto, sinplea da. Gure gaineko menderakuntza kudeatuko duen hurrengo inperialista hautatu ahal izatearen ustezko *pribilegioaren* truke –trufa da, noski–, demokraziaren labela ematen ariko nintzaiokelako opari nire zapaltzaileari, eta gure printzipio lehenei uko egitea suposatuko lukeelako horrek, zuzenean.

Abstentzioa eta boikota dira okupazioaren aurrean herri menderatuoi berez atera beharko litzaizkigukeen keinu naturalak; erresistentziarena, duintasunarena, kokaleku ideologiko egokiaren adierazgarria, eta estrategia nazional baten abiapuntu ezinbestekoa. Ea ba. ●

Preso(ohi)ak zapatan



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Hego Euskal Herriko udal hauteskundeen kanpainen zenbait zerrendatan odol delituak zituzten preso ohiak egotea izan zen debate mediaticoetako bat eta, ondoren, lagun horiek atzera egin zutela.

Beharbada, mugimendu harekin EH Bilduk zenbait boto irabazi zituen, eta modu zabalagoan, ziur naiz, herritar batzuen begietara irabazi zuela bilatzen zuena: ETak eragindako biktimekiko enpatia, borroka armatuarekiko urruntasuna eta atzoko eta gaurko ezker independentistaren arteko aldea erakustea. Argi dago, egunen batean, EH Bilduk hauteskundeetan hegemonia politikoa irabaziko badu, beharrezkoak dituela aurreko hiru helburuetan sakontzea.

Besterik da, gai honetan (eta beste batzuetan) ezker independentista no-raino eta nola “normalizatzen” den eta (hauteskunde) garaipen egunean, no-raino eraldatu den. Noizbait, Polizia, hezkuntza, osasungintza, hedabide eta txiringito publikoen kudeaketara helterako, zer tarte izango duen aldaketak edo aldaketatxoak egiteko. Bestela esanda, gaur meloiak ereiten badituzu bihar meloiak jasoko dituzu.

Horregatik, hauteskunde lehiatik harago, edo lehenago, edo ondoan, hitz egin beharko litzateke espetxeaz, adibidez (eta beste gai batzuei buruz). Izan ere, badu atzera bueltarik preso egonda-

ko pertsonak hautagai (edota interben-tore) izateko aukerak?

Espetxeak zigorrerako eta pertsonen suntsipenerako diseinaturiko ezlekuak dira, autoritarismoa, biolentzia, droga legalak eta ilegalak, morrontza, lan esplotazioa eta abar erabiltzen dute pertsonak makurrarazteko. Dena gizartearen begietatik aparte. Espetxetik aterata ere, oro da traba burokratiko eta laguntzarik eza, familia eta lagun inguru indartsurik ezean, preso ohiak hura du azken traba handia “birgizarteratze” deiturikoari begira.

Zigorraldia bete ondoren, edozein preso ohik eskubidea du lanean hasteko, kirola egiteko, antzerkira joateko, alderdi politiko batean militatu edo hauteskudetara aurkezteko. Orain, hautes-tsi ez izateko aurrekari honekin, legez aitorturik zuten eskubide bat *de facto* kendu zaie pertsona preso ohiei, tira, “odol deliturik” zutenei.

Noiz bukatzen da zigorra? Sinesten dugu espetxean zigorra bete duen pertsona batek bizitza berria hasteko duen eskubidean? “Birgizarteratzean” sinesten dugu? Zergatik ez diogu uzten gizarteari beren boto edo boto ezaren bidez pertsona horren egokitasuna ebatzi dezan?

Beti pentsatu dut eskoletako ikasleak, museo, txango eta abarrez gain, zabor-tegiak eta espetxeak ezagutzera eraman beharko liratekeela. Motibo bat gehiago-rekin, orain. ●

Parkean



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Etxe aurrean parke eder bat daukat. Ederra, gure porlanezko herri zulo honetako parametroetan, behintzat. Zuhaitzak, bankuak eta txintxau-nak daude, eta bertan bizitzaren hasiera eta amaiera elkartzen dira, muturretako adinetakoak ume eta zahar. Zaintza lanetan ibili ezik, helduak ez dira bertaratzen, beste espazio batzuk dituzte eta. Baina gero eta gazte eta heldu gehiago egoten dira bankuetan jarrita. Hori bai, beste jatorri bat daukate, eta parkearen adina orekatzen dute.

Zabulu bako erdigunean, baloiak dira jaun eta jabe. Jaun, pelota atzetik dabil-

tzanak mutikoak eta ez hain mutikoak direlako. Jabe, plazarenak, pelotakaden beldur. Baloiak, gainera, erdigunetik des-gerrarazten ditu neskatilak, eta bazterretara kondenatu. Jaun eta jabe, beraz.

Umeei galdetu diete herri batzuetan parkeak diseinatzerakoan, baina ez zaharrei, edo zaintzaileei, gure imajinarioan haurrena baino ez delako parkea, ez zaharrena, ez helduena. Helduak, tabernetara. Zaharrak, hor konpon.

Baina gerizpeaz eta haizeaz disfrutaztea denon aukera izan beharko litzateke, eta parke humanoagoak aldarrikatu guztiondako. ●

Transmisio eta berreskurapen kooperatiboaren beharraz



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Uztailaren hasieran jakin dugu gure herrian langileon etxe askotan ospakizunerako ezinbesteko izan diren pastel eta gozoen De Paula lantegia itxiko dutela. Erretiroa hartuko omen dute gozogileek, eta noski, erretiroa hartuko duten langileek deskantsurako eskubide osoa dute, baina gozamen komunitariorako elementu garrantzitsu bat galduko dugu herrian, eta uste dut horrelakoetan jarraipena sustatu eta bermatuko duten tresna kolektiboak beharrezkoak ditugula.

1980eko hamarkadan gertatu zen krisi industrialaren testuinguruan enpresa berreskuratze asko izan ziren Euskal Herrian. Ez dut oroimen zuzenik, baina urte batzuk geroago ikusi nuen, eta Katalunian enpresa baten berreskuratze esperientzia erakusten duen Joaquim Jordáren *Numax presenta* filmak pentsamendua markatu zidan. Izan ere, enpresa bideragarrien edo sozialki beharrezkoen berreskuratze edo transmisio prozesuak ez dira errazak izaten, asko gaizki amaitu izan dira, baina bidean garatutako autogestio praktikek komunitateko pertsonen bizitza betirako aldatzen dute.

Gozamen komunitariorako lantegi garrantzitsu bat galduko dugu herrian; horrelakoetan jarraipena sustatu eta bermatuko duten tresna kolektiboak beharrezkoak ditugu

Prozesu horiek gehienetan proiektuko langileen ekimenaren baitan geratzen dira, eta horrelakoetan behar den babes eta tresnak ez dituzte eskura izaten beharrezkoen diren momentuan. Baina kolektibizazio prozesuak nola egiteaz gain, nork egin behar dituen ere galdera garrantzitsua da. Enpresa horiek behar komunitarioak aseko badituzte, prozesuen subjektuak zabalak izan beharko

dira, langileek, herritarrek, lurraldeko erakunde publiko, sindikatu eta kooperatibek osatuak. Eta noski, ezagutza eta harreman sareak ez dira egun batetik bestera sortzen.

Bizi dugun krisi egoera jarraituaren ondorioz, enpresetan lanaren, ezagutzaren eta jabetzaren transmisio behar handitu dira, bereziki landa eremuan lehen sektoreko eta zerbitzuetako proiektuetan, eta gure herri eta auzoak bizigarri egiten dituen merkataritza txikian. Bide berean, enpresa handiagoen berreskuratze behar berriak etorriko dira laster, eta kooperatibismoaren garapena kontraziklikoa denez, prestatu behar dugu egoerari tresna kolektiboekin erantzuteko, komunitateak sustengatutako proiektuen bitartez, kooperatibismoaren eta sindikalismoaren aliantza berriekin.

Horretarako, formazio, finantziario, bidelaguntza eta babes publiko-komunitariorako tresna sendoak beharko ditugu. Ildoa lantzen ari gara kooperatibismo eraldatzaitetik, baina sare trinkoagoak beharko ditugu gure lurraldeetatik erronkari erantzuteko. ●

ARGIA azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Zaldi bat ihes garrezko zelaian

Koldo Izagirrek egindako hautaketa



No!

Komikia

Eli Pagola, Maitane Gartzandia eta Miren Artetxe



OTU

Sortu zuen istorioak
Karta-jokoa
70 karta

Euskal Herrietako borroken isla - Reflejo de las luchas de Euskal Herria
Le reflet des luttes des Peuples Basques - صور النضالت في البلاد البسكي



INFORMAZIO GEHIAGO
WWW.ITA.EUS

Senegalgo iraultzaren argi-ilunak

Protestak kalean, Polizia oldartuta, oposizioko burua bortxaketagatik salatua, gero atzera egin eta delitu arinagoagatik salatua; orain, gazteak galbidean jartzeagatik zigortua, etxean atxilotuta. Bitartean, kalean, zazpiehun atxilotu inguru eta gutxienez hogeit hildako. Ustelkeriaren eta kolonialismoaren aurkako garrasiak, panafrikanismoaren aldeko aldarriak.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Non, eta Afrikako herrialderik “demokratikoenetako” eta “egonkorrenetako” batean; Senegalen. Non, eta Europako bazkide komertzialik handienetako batean. Ousmane Sonko oposizio buruaren zigorrak piztu ditu protestak herrialdean, baina hori baino askoz gehiago dira: Macky Sall presidentearen eta bere sistema “ustelaren” aurka ari dira herritarrak.

Senegalen bi bando daude, parez pare borrokan: “Boterea utzi nahi ez duen kasta bat dago, eta, bere aurrean, askatasuna eta aurrerapenak nahi dituen gazteria bat”. Saiba Bayo politologo senegaldarrak deskribatu digu egoera. Egoera

“kezkgarria” dela dio, “kale itsu batean” dagoela. Kaleetan protestan ari dira egungo presidentea eta bere sistema boteretik kentzeko, Sallek bere hirugarren agintaldirako hautagaitza aurkeztuko zuen mamua baitzegoen herrialdean, Sallek berak hauspotua. Hilabetez agerraldirik egin barik egon ostean, uztailaren 3an agertu zen presidentea eta aukera hori baztertu zuen: aipagarria da Senegalgo konstituzioak debekatu egiten duela hiru legegintzalditan aurkezte, baina Sallek bere erabaki gisa saldu du.

Pauso horrek asko lasaitu ditzake kaleetako iskanbilak, baina arazoaren bigarren zatia konpontzeke dago orain-



dik: Sonkok, jaso berri duen epaiarekin –bi urteko kartzela zigorra eta 31.000 dolar inguruko isuna–, debekatuta luke 2024ko hauteskunde presidentzialetara aurkezte, inhabilitazio politikoa medio. “Sonkoren etorkizun politikoa zalantzan dago, suposatzen delako ezin dela aurkeztu. Eta, momentu honetan, bera da hautagai serioena”, dio Bayok. Herrialdean horrelako altxamenduak ohikoak badira ere, oraingoa ezberdina da. Bayok egoera aztertu du: “Senegalgo presidente guztiek egin behar izan diete aurre herri altxamenduei, baina oraingoetan oposizioko liderrak gazteen babes osoa du; eta, era berean, haserre dago gizar-



Sonko oposizio buruaren aurkako zigorrak berriro piztu zituen protestak ekainean. ZOHRA BENSEMRA / REUTERS

tean herrialdearen kudeaketa politiko eta ekonomikoagatik". Bien bitartean, Sonkok etxeko atxiloalditik borrokarako deia zabaldu die bere jarraitzaileei.

SISTEMAREN AURKA, BARRUTIK

Senegalgo gatazka pertsonalismoz bete da, hori uste du Bayok, baita Sonkorengan dagoela sistema iraultzeko pisu guztia ere. Baina beste edonor ere izan zitekeen, hain da handia haserrea: "Ez du hainbeste axola Sonko edo beste norbait izatea liderra, edonor izan zitekeen". Izan ere, Ousmane Sonko ez da

borrokalari bat, ez da gobernuaren erasiterako heldutako gerrillari bat; Senegalgo Gobernuako funtzionario ohi bat da, ogasun ikuskari bat. Lanpostu horretan zegoela, ordea, gobernuaren eta herrialdeko elite ekonomikoaren ustelkeria salatu zuen. "Senegalen dauden enpresa handien gehiegikeriak salatu zituen, ez soilik multinazionalenak; eta kritikatu zituen botere ekonomiko europar zein senegaldarren abusuak", azaldu du Marra Juniorrek, Bilbon bizi den Senegalgo diasporako kideak. Xalaat ak Xelli (Pentsatu eta ekin) pentsamendu taldea

osatu du Juniorrek diasporako hainbat pertsonarekin.

Hortxe hasi zen Sonkoren ibilbide politikoa, baita zigor ibilbidea ere. 2017an diputatu bihurtu zen, eta handik bi urtera hirugarren indar bilakatu zen. Ustelkeria kasuak aireratzeak bere alde egin zuen, Juniorren ustez: "Sonko 'herritarren' alde posizionatu zen, eta diskurtsoa garatu zuen. Senegalek eta Afrikak behar duten liderra da; baina baita politikara lengoia berri bat ekarri duena ere: herrialdea eraldatzeko itxaropen mezu bat helarazteko gai da".

2021ean, ordea, emakume bat bor txatztea eta heriotza mehatxuak egi tea egotzi zizkieten. Prozesu judiziala “irregularra” izan dela dio Bayok, eta Sonkoren erruan edo errugabetasunean baino, prozesuaren nondik-norakoetan jarri du fokua. “Prozesu judiziala irregularitatez beteta dago. Instrukzio fasean frogara asko baztertu zituzten”. Bestalde, leporatu dioten delitua ez zegoen Poliziaren txostenean. Gainera, gehitu du epaiketa bera Sonko barik egin dutela. “Epaiketa Sonko bertan egon barik egin dute, eta hori babesteko erabili dute tresna bat, aurkitu ezin duten epaituaren kasuan erabiltzen dutena; baina Sonko bere etxean zegoen, poliziaz inguratuta. Nola esan daiteke bera non dagoen ez dakitela indar polizialak etxeko atean baditu?”.

Prozesu horri gehitu zitzaion parlamentuko kideek immunitate parlamentarioa kentzea Sonkori, epaitu eta kartzelaratu ahal izan zezaten. Lehen protestak orduan piztu ziren, hamar lagun hil zituzten liskarretan, eta seihundik gora zauritu zituzten. Horrela bada, ezin daiteke esan aurtengo ekainean hasi denik Senegalgo krisia, arnasa luzeko kontua baita; baina aurten, jada sententzia kalean dela, asko baldintzatu dezake etorkizuna, 2024ko hauteskunde presidentzialen atarian.

EMAKUMEEN GORPUTZA OHOLTZA POLITIKO

Sonkoren izen ona ala txarra eta gobernuaren ustelkeria ala ustelkeria eza eztabaida publikoan eta fokupean dauden bitartean, badago oholtzatik kanpo geratu den, eta, era berean, oholtza bera den eremurik: emakumeen gorputza, edo, kasu honetan, Sonkoren salatzailearena. “Momentu honetan, herrialde osoa dago bi gizon boteretsuren kapritxoaren artean katigatuta, eta bitartean Adj Sarren gorputza (salatzailea) boxeo zaku baten gisan ari dira astintzen bi bandoen artean”, Senegalgo Sare Feministak azaldu du komunikatu batean. ARGIA beraiekin harremanetan jarri da, eta sinatzaileetako batekin elkarrizketa hasi du, baina egoera konplexuegia eta sentikorregia izanik, bertan behera geratu da elkarrizketa.

Epaia atzera pausotzat jo dute sare feministako kideek: “Edonondik begiratu ere, epai hori kolpe gogor bat da Senegalgo emakumeen eskubideentzat”. Komunikatuan, sareak zalantzan jarritzen du oposizioko mugimenduek aho

Saiba Bayo politologoak kritikatu du Sonkoren epaiketa “irregularra” izan dela.



SAIBA BAYOK UTZIA

“Presidente guztiek egin behar izan diete aurre herri altxamenduei, baina oraingoetan oposizioko liderrak gazteen babes osoa du”

Saiba Bayo

handiz dioten bertsioa; dena gezurra dela, alegia. Sonko salatu duen emakumea masaje denda bateko langilea da, edo zen, hobeto esanda; salaketaren ostean dendaren jabeak Sonkoren kartzela zigor bera eta denda ixteko agindua jaso baititu. Sareko kideek zehaztu dute bortxaketa baino beste delitu arinago bat epaitzeko ez duela esan nahi bortxaketa egon ez denik, baizik eta “erakunde sexistak dituen sistema juridiko batean” bortxaketa frogatzea oso zaila dela; are, diote herrialdean ia ez dela gizonik zigortzen bortxaketagatik.

Komunikatuan gehitu dute salatzaile sinesten dutenek zera diotela: Sonkoren alde egin zuela bere izen onak, eta bere inozentziaren alde jokatu dutela epaitegietan. Baina dendaren jabea ere zigortzeak erakusten du, komunikatuan

diotenez, sexu konnotazioak dituzten zerbitzuak ere eskaintzen zituztela. Kasu mediatiko horrek zaildu egingo du, beren ustez, sexu indarkeriaren biktimak diren emakumeek indarkeria horiek salatzea, kasu honen eragina ikusita. Gainera, gehitu dute Adj Sarren Sonko salatzeke manipulatu dutela esateak estereotipo sexistak indartzen dituela, eta biktimak infantilizatzen dituela, ulertarazten baitute ez direla gai beren kabuz sexu eraso bat identifikatzeko.

NEOKOLONIALISMOA BIZIRIK

Macky Sall Senegalgo sistemaren aurpegia da, independentzia garaitik eta aurreko garaietatik datorren sistemarena: koloniala. “Administrazioa koloniala da, ez da tokian tokiko gobernanzarako pentsatua. Ez daukate inongo interesik herrialde kolonizatuen garapen ekonomikoa lortzeko, esplotazioa baino ez dute nahi”, dio Bayok. Sall *status quo* da, eta *status quo* hori ondo datorkio Europari, espolioa jarraitzeko bidea baita. “Senegalek Frantziarekin dituen akordioak kolonialak dira, hori argi. Frantzia lehen bezeroa eta hornitzailea da, Senegalgo edozein enpresa pribatizatzekeotan Frantziak lehentasuna du. Akordio kolonial bat dago”.

Frantziak kontrolatzen ditu Senegalgo multinazional nagusiak, herrialdeko zerbitzu nagusiak: “Frantziak kontrolatzen du Senegalgo portua, Mendebaldeko Afrikako garrantzitsuenetako bat”. Eta portu horri lotuta daude Europako kontratu nagusiak. Izan ere, Senegalen

negozioak dituzten europar enpresa gehienak arrantza sektorekoak dira; Euskal Herriko arrantza-ontziak ere badira Senegalgo kostaldeetan. Kontratu horiek, ordea, “gehiegizkoak” direla salatu dute oposizioko mugimenduetako kideek, eta herrialdeko etorkizuna baldintzatzen dutela. Honela dio Junio-
rrek: “Gazteak herrialdetik alde egitera bultzatzen dituzte. Egoera horrek kondenatu egiten du Senegalgo gazteria, lanik ez dutelako eta migrazio bide arriskutsuak hartu behar dituztelako Europara”.

“Senegalen enpresa frantses asko dagoenez, hedabideek ez dute Senegalgo egoera negatiborik ematen, enpresak bertatik joan ez daitezen”

Marra Junior

Izan ere, Senegalgo ekonomia ia osoa arrantza tradizionalen oinarritzen da, eta BPGan indar handia du: batez beste 415 milioi euro ekartzen dizkio herrialdeari, eta 600.000 lanpostu sortu. Baina Europako Batasunak herrialde sozioekin dituen kontratuak ahalbidetzen dute arrantza esplotazio-ko enpresa multinazionalak Afrikako kostaldean lan egitea. Azken kontratu arabera, Europako 42 arrantzontzik dute baimena han egoteko, bost urtean 10.000 tona arrain hartzeko.

Baina ekonomikoki soilik ez, geoes-
trategikoki ere garrantzitsua da Senegal Europarentzat. “Terrorismoaren eta migrazioaren aurka, Senegal herrialde estrategikoetako bat da: geografikoki eta diplomatikoki. Bertan daude, frantses gobernutik, lehen enbaxadak; kooperazioaren begiradatik ere, Afrikan dauden antolakunde askok bertan daukate egoitza”, dio Bayok. Erakunde horiek behar dute, ezinbestean, herrialde egonkor eta lasaia. Eta hori da, hain zuzen ere, Senegalek sortu duen irudia. “Egoera horrek eragiten



Marra Junior Bilbon bizi da, eta Xalaat ak Xelli (Pentsatu eta ekin) pentsamendu taldea osatu du diasporako hainbat pertsonarekin.



ZOHRA BENSEMRA / REUTERS



Sonko oposizioko liderraren aldeko manifestariak eta Poliziak liskarrak izan dituzte.

du lasaitasun irudian, garapen bidean dagoen herrialdearen irudian. Hori zen, hain zuzen ere, Sallen kanpaina”, dio Bayok.

Irudia faltsua dela dio Bayok, eta horretaz konturatzeko bertako egoera ezagutu besterik ez dela egin behar. Herri altxamenduak ohikoak direla dio, herritarren egoera okertzen ari dela eta gobernuaren eta herritarren arteko arrakala gero eta handiagoa dela: “Senegalen milaka lagun daude pobrezian, ez daukate elikagairik, ospitaleak eta eskolak ez daude baldintza onetan, umeak zaurgarritasun egoeran daude. Horren gainean dago gobernuak kideen bizi maila gero eta altuagoa, sekulako arrakala dago herriaren eta gobernuaren artean”.

ZENTSURA ETA AUTOZENTSURA

Protesta eta iskanbila betean dago sar-tuta herrialdea, baina horien inguruan apenas jasotzen den informazioa eta irudirik herrialdean zein nazioartean. Eta hori lotuta dago, Junior eta Bayoren hitzetan, herrialdeko irudi “egonkorra-ri”. “Europako hedabideei, baina batez ere frantsesei, asko interesatzen zaie Senegalgo egoera nola tratatzen den. Senegalen enpresa frantses asko dagoenez, hedabideek ez dute Senegalgo egoera negatiborik ematen, enpresak bertatik joan ez daitezten. Ez dute nahi

Senegalgo Sare Feministak salatu du botereko bi bandoak “boxeo zaku” gisa astintzen ari direla oposizio burua sexu erasoagatik salatu zuen emakumea

fluxu ekonomikoa moztu, Senegal inbertsioetarako leku ona dela erakutsi nahi dute”, dio Juniorrek.

Bi aukera dituzte hedabide eta kazetariak: autozentsura ezartzea ala zentsura jasateko arriskua hartzea. “Hedabide gehienek ez dute gaiaren inguruan berba egiten, gobernuak dirulaguntzak ematen dizkietelako, baita kazetari independenteei ere, eta badakitelako zer suposatuko lukeen. Edo gobernuaren alde daude hedabideak edo lizentzia galtzeko mehatxua daukate. Horrela, bertan behera utzi diote seinalea kate nagusietako bati”, azaldu du Bayok.

Sare sozialak bihurtu dira, beraz, beren komunikaziorako bide bakar.

Herrialdeari buruzko informazioa, ia bere osotasunean, sare sozialetatik jasotzen dute diasporan daudenek, baita nazioarteko hedabideek ere; izan ere, kazetariak kartzelaratu eta seinaleak moztu dituzte gobernutik. Baina gobernu horren jakitun da eta, horregatik, Interneteko konexioa moztu du.

DESERRITIK BORROKAN

Egoera horrela, deserrira are deserrira- go bihurtzen da maiz. Herrialdearen hamabosgarren eskualdetik –horrela deitzen diote diasporari–, informazioa zabaltzen ari dira, ulertzen baitute beren betebeharra dela han gertatzen denaren berri ematea hemen eta horren aurka altxatzea. “Gure betebeharra da ahal dugun informazio guztia helaraztea nazioarteko hedabideei, izan ere, herrialdeko hedabide alternatiboan eta diasporako biztanleen lanagatik ez baltitz, agian, ez litzateke publiko egingo egungo egoera”, dio Juniorrek. Bere eta bere taldearen gain hartu dute Mally Sack presidentearen delituen kontaketa, Nazioarteko Zigor Gortera eramateko, eta baita atxilotutakoen eta desagertutakoen kontaketa zehatza egitea ere.

Gauza bera egin du Bayok ere: “Nik ere txiolari bihurtu behar izan dut, eta ni bezala senegaldar diasporako kide askok egin behar izan dute, kazetarien partez. Kazetarien egoera oso konple-



Bilbon eta Iruñean ere mobilizazioak egin dituzte Senegalgo presidentearen aurka. EKINKLIK

“Sonko oposizioko burua ‘herritarren’ alde posizionatu zen, eta diskurtsoa garatu zuen. Senegalek eta Afrikak behar duten liderra da”

Marra Junior

xua da, eta, horregatik, guk arriskua hartzen dugu gure familiako kideek emandako informazioa argitaratzeko. Posizionatu behar dugu”, dio Bayok.

Mobilizazioetarako deia ere egin dute Junior kide den Xalaat ak Xelli taldetik, Bilbon eta Iruñean, eta jasotako erantzunak pozik utzi ditu antolatzaileak. “Senegalgo diasporako komunitatea oso lasaia da, pasiboa. Horrek zerikusia du hemen bizi dugun egoera prekarioarekin. Baina, egoera ikusita, jende askoren artean piztu da borrokarako grina. Jende askok erantzun zuen, hemen sekula aurretik mobilizatu gabeko jendea mobilizazioetan izan zen”, azaldu du Juniorrek.

Euskal herritarrengandik ere erantzun positiboa jaso dutela dio Juniorrek, baita mobilizazioan izan ziren hedabide eta alderdi politikoen partetik ere, beraiekin harremanetan jartzea lortu zutelako, eta hurrengo helbururako ere atek ireki zizkielako: “Uste dugu Euskal Herrian dagoen Senegalgo errepresentazio hori erakundeetara ere heldu behar dela eta erakundeek honi ere erantzun behar diotela”.

Etorkizuna ez du ez zehatza ez argia Senegalgo herriak, hori dio Bayok, eta aldaketa, Sonkoren eskutik baletor ere, ez da egun batetik besterakoa izango: sistema osoa du aldatzeko, hori besterik ez. “Klase politikoaren blokeak desegin behar dira, botere judiziala guztiz erreformatu behar da. Sistema guztiz infektatuta dago, sustraiak aldatu behar zaizkio arbolari. Sistemaren aurkako borrokan dabilta orain, eta gero azpisistemaren aurka egin behar da: funtzionarioak, epaileak eta beste asko *status quo*aren aldaketaren aurka altxatuko dira”. Bayok argi du, protestak bezala, gobernua eta herrialdearen etorkizuna ere gazteen esku daudela, beraiek daukate sistema eraldatzeko giltza: “Prozesua ez da izango gure belaunaldiaren eskutik, hau lortuko dutenak gaur egun hogeinaka urte dituztenak dira”. ●

mitxelena
MEKANIZATUAK

Eztiago Industrialdea 21, HERNANI | 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus | www.talleresmitxelena.eus

'SOILIK BAIETZ DA BAIETZ' LEGEA

Polemikatik harago, ezagutu beharreko puntuak

Pasa den azarotik, batik bat, hedabideetan asko hitz egin da Sexu Askatasuna Erabat Bermatzeko Espainiako Lege Organikoaren gainean. "Soilik baietz da baietz" gisa ezaguna den legeak zarata mediatiko handia piztu du, zarata politikoaren ondorio, gehien bat. Baina informazio argigarriaren ordez, gehiago zabaldu dira uste okerrak eta mezu faltsuak. Horixe diote, behintzat, EHUko Udako Ikastaroetan *Justizia Ildo Feministan* saioa antolatu dutenek. Zarata eta desinformaziotik urrundu eta hausnarketa sakonagoa egiteko baliatu dute, legea gertutik landu duten legelari, kazetari eta feministen gidaritzapean.

 LEIRE ARTOLA ARIN  HODEI TORRES

Ekainaren 26 eta 27an "Soilik baietz da baietz" legearen bueltan piztutako argi-ilunak landu dituzte Bilboko Bizkaia Aretoan, eta fokua jarri dute hedabideetan eman zaion trataeran, funtsezkoa izan baita jendartearen orokortu den legearen aurkako diskurtsoa eraikitzeko, ikastaroko hizlarien esanetan. Legearen funtsa *onespenaren* ideia izan da, eta sexu eraso eta sexu abusu delituak zaku berean bateratu dituzte, eraso jasan duten emakumeek "intimidazioa" egon dela frogatu behar ez izateko, besteren artean. Baina zigorren ezusteko murrizketek eragindako asalduraren ondorioz, PSOE eta Podemosen artean desadosta-

sunak handitu eta PSOEek aldebakarrez legea moldatu du berriro. Podemosen eta hainbat talde feministek leporatu diote *onespena* erdigunetik alboratu izana, eta birbiktimizazioa legera itzularazi izana.

Victoria Rosell magistratu eta Espainiako Gobernuaren Genero Indarkeria arloko ordezkariak azpimarratu du sistema judiziala oso patriarkala izan dela betidanik, eta lege honekin aurre-rapausoak eman direla, nahiz eta itzalean geratu diren, bortxaketatik kondenatutako gizonei zigorrak murrizten ari zirela-eta sortutako polemikagatik. Rosellek salatu du gezur ugari zabaldu direla hedabideen bidez, eta adierazi du

harrituta dagoela nola ez diren legearen alde onak ezagutarazi.

Aurreko legearen aldean hobetu diren hainbat arlo aipatu ditu: kaleko jazarpena jaso da, irudiak hartu eta baimenik gabe zabaltzea babestu da, gobernuaren zaintzapean dauden adin txikikoen babesa handitu da, epaiketa prozesua bizkortu da... "Ez dut inon entzun hori guztia", kritikatu du.

BORTXAKETA KASUAN, LAGIN BIOLOGIKOAK

Bi puntu nabarmendu ditu Rosellek: lehena, bortxaketen kasuan mediku forentseak lagin biologikoak hartu behar dituela aurrerantzean, nahiz eta mo-

mentuan emakumeak erabaki ez duela salaketa jarri nahi, lagin horiek gordeko dira unerren batean salatzea erabakitzen badu erabiltzeko. Magistratuaren esanetan aldaketa handia da, orain arte froga faltagatik ezin baitzen delitu hori epaitu. "Emakumeak ez dira zauriekin iritsi behar, hasieratik esaten diegu sinesten diegula, eta lagina hartuko dugula". Bigarrena, beste zigor batzuk gehitu dituztela legean, kartzela zigorrez harago. Esaterako, adin txikikoekin lan egiteko inhabilitazioa, nahiz eta lan boluntarioa izan. "Zerk babesten du gehiago, kartzela zigorrak ala adin txikikoak entrenatzeko inhabilitazioak?", galdegin du.

Rosellek ziurtatu du ez direla Berdintasun Ministerioaren "hutsegiteak" izan aurpegiratu zaizkion zenbait "akats". Adibidez, legea "presaka" egitearena: "Bi urte eta erdian prestatu dugu legea, eta pandemiaren eraginez, parte hartze herrikoi eta feminista oso handia izan du". Gainera, defendatu du "aurreikusi ezina" zela gehieneko kartzela zigoren murrizketak eragingo zuela kondanatutakoak kartzelatik ateratzea edota zigorra murriztea, eta legea ez dela zuzen interpretatu. "Nork agintzen du hemen, botere judizialak edo botere legegileak? Zergatik ez da lege berrira moldatu jurisprudentzia osoa? Eta zergatik lege hau jurisprudentzia zaharrera moldatu behar izan da? Epaillek legea ez dute behar bezala aplikatu, kontzienteki. Puntu positiboak ez dituzte aplikatu".

"Ezetz ezetz da" ideiatik "soilik baietz da baietz" baieztapenera igaro nahi izan dute lege berriarekin, eta eskubide eta betebeharren arteko diferentziaren gogoeta egin du magistratuak. "Txikitatik erakutsi zaigu 'ezetz' esan behar dugula; emakumeon betebeharra da hori, eta ulertarazten da gizonak eskubidea dutela behin eta berriz saiatzeko". Desberdinen arteko eskubidea dela dio, eta "soilik baietz da baietz" esaten denean, ordea, berdinen artekoa dela, biek eman behar baitute onespina. Emakumeei zama arintzeko onginiko legea dela azaldu du Rosellek: "Lege hau emakumeen eskubideen defentsarako egin da, baina baita estatuari betebeharrak ezartzeko ere. Estatuaren betebeharra da bortxaketak epaitzea eta emakumeekin kolaboratu behar du".

Ikastaroan etengabe errepikatu duten gisan, Espainiako Berdintasun Ministerioako kideek, eta bereziki Irene Monterok, epai gogorra jaso dute legearen harira, eskuineko oposizioaren al-



"Zerk babesten du gehiago, kartzela zigorrak ala adin txikikoak entrenatzeko inhabilitazioak?"

Victoria Rosell

detik ez ezik, herritarren partetik ere bai. Hizlariak ohartarazi dutenez, orain arte emakumeen eskubideez arduratu ez diren eskuineko sektore erreakzionarioak zigoren murrizketa baliatzen ari dira Berdintasun Ministerioaren aurka jotzeko. Dena dela, horrek guztiak merezi izan duen galdetuta, Vitoria Rosellek zera erantzun dio Irantzu Varela moderatzaileari: "Sanferminetan bortxatu zuten andreak jarraitzen du zalantzan ipintzen ea merezi izan dion salaketa jartzea –nahiz eta epaiketa irabazi duen–, prozesua oso gogorra izan delako. Lehengo legearekin salaketa



jarriko lukeen galdetuta, ezetz esaten du. Beraz, nik ezin dut zalantzan jarri ea lege berri hau egitea merezi izan digun”.

“LEGEA EZ DA ULERTU”

Sexu Askatasuna Bermatzeko Lege Integralaren itzalak eta argiak zehaztu dituzte María Naredo legelari eta Beldintan Ministerioko aholkulariak, Nerea Barjola politilogo eta aktibistak eta Carla Vall i Duran abokatu eta kriminologoak. Nabarmendu dute legearen itzal nagusia dela ulertu ez izana, eta mugimendu feministarentzat porrota izan dela; gainera, mugimenduaren zatiketa handitu dela aipatu dute, eta jendarteak ez duela bere gain hartu auzia, baizik eta emakumeen kontua izango balitz bezala tratatu dela.

Hizlariak ohartarazi dute hedabide hegemonikoek legearen gaineko diskurtso negatiboa zabaldu dutela, eta sektore erreazionarioek informazio faltsuak hauspotu dituztela. Legearen bueltan sortutako zarata mediatikoa aztertu dute lau kazetari feministek mahai-inguruan. Mainer Galardi –Berria FM–, Patricia Reguero –El Salto– eta Isabel Muntané –Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Komunikazioa eta Generoa masterreko zuzendaria– jardun dira, June Fernández –Pikara Magazine– gidaritzapean, berretsi dute kazetarien lana dela feminismoa gizarteratzea, eta sexu indarkeria tentuz jorratzea; betiere eraso jasan duen emakumearen ahotsa errespetatuta eta egiturazko arazoa dela adierazita.

“Ofentsiba antifeminista handitzen ari da, eta testuinguru horretan, hedabideek erabaki dute pedagogia egin beharrean eztabaida zentratzea zigorren murrizketan”

Mainer Galardi

“Soilik baietz da baietz” legeari medioetan emandako trataera zenbait faktorek baldintzatu dutela dio Galardik: “Ofentsiba antifeminista handitzen ari da, eta testuinguru horretan, hedabideek erabaki dute pedagogia egin beharrean eztabaida zentratzea zigorren murrizketan”. Muntané gehitu du kontuan izan behar direla kazetarien prekarietatea eta formazio feminista eza, haien jokabidea ulertzeko: “Oso zaila da gaia testuinguruan kokatzen duen informazio ona argitaratzea egoera horretan, sentsazionalismora jo ohi da, diru gehiago ematen duelako”. Galardiren bidetik, uste du “gorroto diskurtsoak” eta “gene-

roaren aurkako diskurtsoak” gizartean arrakasta izaten ari direla, eta kazetariak bilatu dituztela klikak emango dizkieten titular hutsak.

KAZETARITZA AZKARRAREN ORDEZ, MAMITSUAGOA

Horren aurrean, hedabide alternatibo edo independenteen lana balioan jarri du El Saltoko Reguerok. Horren arabera, nahiago izan dute azkartasuna baino sakontasuna eta testuingururaketa lehenetsi. Reguerok jakinarazi du azaroan, zigor murrizketen auziak eztabaida egin zuenean, berak astebete pasa behar izan zuela gertatzen ari zena ulertzeko. “Neuk ulertzen ez banuen, ezin nuen kontatu. Berandu erreazionatu genuen, baina uste dut egokiena zela, hausnarketarako denbora luzeago behar genuelako”. Halere, jakitun da “berandu” iriste horrek eragingo diela jende gutxiagok irakurtzea, ordurako gainerako medio gehienetan ariko baitira gaiaz hizketan.

Muntané argi dauka hori dela egin behar litzakeen kazetaritza, eta ez hedabide konbentzionalek egiten duten kazetaritza azkarra. “Denok egin behar genituzke hausnarketa, analisia, feministei ahotsa eman... eta horrela jendearen konfiantza irabazten duzu, eskertu egiten dutelako Pikara edo antzekoetan egindako artikulua sakonagoak irakurtzea, erremintak ematen dizkielako”. Mahai-inguruko lau hizlariak bat datoz: azken bost-hamar urteetan jauzia eman da kazetaritza feministagor baterantz, eta hedabide alternatiboek soilik lantzen zutena orain hegemonikoetara ere zabaldu da.

Reguerok proposatzen du legearen trataera azarotik hona begiratu beharrean, atzerago botatzeko begirada. “2018an lege proposamena zegoen, sanferminetako talde bortxaketaren harira altxatutako ahotsen ondorioz. Orduetik ari gara hedabideetan sexu indarkeriari buruz hitz egiten”. Gogorarazi du azken bost urteetan hainbat auziri buruz hitz egin dela komunikabideetan: talde bortxaketak, kaleko jazarpena, sexu jazarpena, biktimaren sinesgarritasuna... Kazetari honen esanetan, era egokian ala ez, baina agenda mediatikoan egon dira gaiok: “Aukera izan dugu sexu indarkeriari buruz zabal hitz egiteko, eta soilik kale ilunetan gertatzen den ustea deuseztatzeke”. Reguerok espero du urte batzuren buruan gai izatea ikusteko orain lortzen



ari dela sexu indarkeriari buruz hitz egitea genero indarkeriaren aterkiaren baitan, “duela hamar urte soilik bikote harremanetakoari buruz hitz egiten baikenuen”.

Baina zein da hedabideetan sexu erasoen berri emateko erarik egokiena? Eta birbiktimizaziorik eragiten ez duena? Isabel Muntanék hiru urteko lanke-ta egin zuen sexu erasoaren bat gaingitu zuen hainbat emakumerekin, eta gomendio gida bat osatu zuen, 2016 inguruan. Ohartarazi duenez, izugarri eragiten die emakume horiei hedabideetan euri buruz argitaratzen dena irakurtzeak, eta haien eskakizun nagusietako bat da ez definitzea biktima soil gisa. Alegia, eraso egin zietenean biktima zirela, baina ez dela betirako, hori baino gehiago direla. Nerea Barjolak dioen moduan, biktima gisa islatu ordez, sexu eraso gaingitu duen pertsona gisa islatzea lagungarria da.

Azaldu dutenez, erreparaziorako modu egokia da euri autoritatea ematea, euren testigantzei aditu batenari bezainbesteko garrantzia ematea. Adibidea jarri du June Fernandezek: “Sanferminetako taldeko sexu erasoan in-

Azken bost-hamar urteetan jauzia eman da kazetaritza feministago baterantz, hizlarien esanetan

formazio gehien eman zuena Nagore Laffageren ama izan zen, Asun Casasola. Nabarmendu zuen sexu eraso jasan zuenari leporatzen ari zitzaioala erresistentzia nahikorik jarri ez izana, baina bere alaba hil zutela erasotzaileari aurka egiteagatik, hain zuzen. Erreparatzailea da feminizidioen familiei ere ahotsa ematea”. Halaber, gomendatu du Patricia Simonek Pilar del Alamori –30 urtez gizonarengatik indarkeria matxista jasan zuen militante feministari– Pikaran eginiko elkarrizketa ikustea, Simonek izandako jarrera “eredugarria” delako.

EZ DAGO ‘USTEZKO’ ERASORIK

Sexu eraso nola kontaktzen den, biktimaren testigantza zalantzan jartzeko arriskua dagoela gogorarazi dute hizlariak. Baina epai irmorik ezean, posible zaio bortxatzaile deitu sexu eraso egotzi dioten gizonari? Legeak dioenaren arabera, “ustezko” bortxatzaile gisa azaldu behar da. Maider Galardik, ordea, Maria Gorosarri EHUKo irakaslearen gogoeta ekarri du: “*Presuntisari* buruz mintzatzen da. Berak dio lapur bat balitz ez genukeela ‘ustezko’ hitza hainbeste erabiliko”. Galardik beste formula batzuk proposatzen ditu hori saihesteko, “bortxaketa egozten dioten gizona”, kasu.

Bide beretik, Muntanék nabarmendu du ez dela inoiz erabili behar “ustezko bortxaketa” formula, iradokitzen baita salatzailearen hitza ez dela sinesgarria. “Ni emakumeen ahotsarekin lerratzen naiz, eta ez dut ‘ustezkorik’ erabiliko”. Azken ohartarazpen bat ere egin die Muntanék kazetariei, sexualitateari eta bortxaketari lotuta: “Hedabideetan sexu eraso ei buruz hitz egiten denean askotan ‘onespenik gabeko sexua’ erabiltzen da. Akats oso larria da. Sexu harremanak beti onartutakoak dira; bortxaketa botere ariketa da, ez sexualitateari lotutako zerbait”. ●

Felipe Uriarte

“Mendizaletasunarekin eta musikarekin herria josi nahi dugu”



Urmuga zeharkaldiak hirugarren edizioa izango du aurtengo udan, uztailaren 12tik 30era. Ekimenaren antolatzaileetako bat da Felipe Uriarte mendizale eta mendi gidaria (Pasai Donibane, 1944). Ur-mugaren ertzetik Euskal Herria ekialdetik mendebaldera zeharkatuko dute aurten ere, musika lagun.

IRATI IRAZUSTA JAUREGI

Nola sortu zen Urmuga, eta zein helbururekin?

2018an *Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere* ekimena egin genuen. Euskal Herriko hamabi gazte eta hamabi sherpa gazte elkartu genituen Nepalen, eta 6.000 metroko bi mendi igo genituen, baita Everest inguruan 24 egunetako ibilaldi biribila egin ere. Proiektua aurrera ateratzeko dirua biltzeko, besteak beste, Oñatiko parrokiaren kontzertu bat antolatu genuen. Kontzertuko egitaraua Migel Zeberio orkestra zuzendariaren eraman zuen aurrera, eta hark esan zidan: “Hurrengo batean musika eta mendia josten dituen ekimen bat egin behar dugu”.

Paper batean apuntatu nuen berak esana, eta, Tibeten eta Nepalen arteko mugan nengoela, oharra ikusi nuen. Altuerak eta mendiak buruan eragiten dute, eta batzuetan kalterako izan daitezkeen arren, niri etorria handitu egiten

zait, eta han izan nuen Urmugaren ideia. Han Himalaiak egiten du muga bien artean, ur-muga bat da. Zer da ur-muga bat? Ertz bat, hari bat; gure kasuan, Euskal Herria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duena, Angulo portutik Hiru Erregeen Mahaiko gailurreraino.

Hari horri tiraka, ideia garatzen joan nintzen: hemeretzi egunetan ur-muga oinez egingo genuen eta inguruko herrietan kontzertuak antolatuko genituen, mendizaletasuna eta musika josita, kultura eta herrigintza lotuta. 2019ko Gabonetan aurkeztu nien lagun batzuei asmoa, eta negu horretan hasi ginen lehenengo Urmuga antolatzen.

Pandemiak bete-bete harrapatuko zintuzten orduan.

Oraindik itxialdian geundela erabaki genuen proiektuarekin aurrera egitea. Maiatzerako lan handia genuen egina, ez genekien kontzerturik egiterik eta

jendea pilatzerik izango genuen. Arazo izan zen alde batetik, baina beste aldetik, kontuan hartuta uda horretan gaur gutxi antolatu zela, ate asko ere ireki zizkiguten.

2020an pandemia tokatu zitzaigun, eta aurten uholdeak, hauteskunde uholdeak. Urmuga antolatzeko ate asko jotzen ditugu: udalenak, aldundienak, Eusko Jaurlaritzarenak... Guztiak oso lanpetuta egon dira hauteskundeak prestatzen, eta orain beste hauteskunde batzuk datoz. Pandemia txarra izan zen, baina hain txarra ez. Hauteskunde uholde hau min handiagoa egiten ari zaigu.

Zein izango da aurtengo Urmugaren ibilbidea?

Ur-mugaren ertza beti bera da, nahiz eta punturen batzuetan bidea aldatzen dugun urte batetik bestera. Ertz hartaz lehen aldiz hitz egin ziguna Luis-Pedro



I. IRAZUSTA

Peña Santiago izan zen; liburu batean bildu zituen ertzaren mapak. Urte batzuetara, Aldatz Gora Bilboko mendi taldeko Patxi Galek bideko mapak herritu zituen. Bera da ur-mugan ortodoxoena.

Guk marra hori jarraitzen dugu, baina ez gara hain ortodoxoak. Esango nuke heterodoxoak garela, eta tranpa txiki batzuk egiten ditugu, osorik egiteko luzezia delako jardunaldia, beste bide bat politagoa delako edo lotarako tokia eskaini diguten lekura desbideratzen garelako. Hala ere, nahiko zintzoak gara ur-mugarekin.

Angulo portutik abiatu eta Euskal Herriko mendilerro eta tontorrik ezagunenak zapalduko ditugu: Gorbeia ingurua, Durangaldeko mendiak, Aizkorri, Aralar... Hiru Erregeen Mahaira iritsi arte. Euskal Herriko zazpi herrialdeak igaroko ditugu. Izaban bukatuko da aurtengo edizioa, 2021ean bezala, eta egun osoko egitaraua antolatu dugu uztailearen 30erako.

Nolako musika eskaintza egongo da? Alde batetik, mikrokontzertuak izango

“Gaur egun herri txikietako despulazioa arazo sozial larria da, eta Urmugak landa herrietara jotzen du, haiei eta bertako biztanleei erreparatzen die”



ditugu, sarri desordutan eta destokitan. Mendi gailurretan, adibidez Txarlazon (980 metro), uztailearen 12an; aterpeetan ere bai, besteak beste Orbaizeta aldean, Azpegi aterpearen aurrean uztailearen 25ean; aparteko leketan ere izango da eskaintza, esaterako Aldatzeko harrobi zaharrea. Mikrokontzertu hauek, batez ere, mendizaleei begira antolatzen ditugu.

Hala ere, musika aldetik garrantzitsuenak kontzertu nagusiak izango dira.


Eskaintza zabala eta askotarikoa izango da estilo aldetik; Et Incarnatus Orkestra izango da musikaren ardatz, eta bere inguruan jiraka arituko dira bakarlariak, txistulariak, trikitilariak... Beste askoren artean, Ibil Bedi, Rukula, Korrontzi eta Xutik taldeen emanaldiak izango ditugu.

Saio handien artean aipatzekoa da uztailearen 17an Araia herrian egingo dena, Marutegi baserriaren aurrean. Klasiko bihurtu da Aizpearro kontzertua, Aralar-ko Desoamendi inguruan. Zulo bat dago, antzina erabiltzen zena, eta duela 2.000 urteko txabolak daude inguruan. Areto perfektua da: orkestra han behean egoten da, eta publikoa goian eserita. Aurtun Aizpearron Eñaut Elorrieta, Alaitz eta Maider, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Olaia Intziarte eta Bixente Martinez izango ditugu. Baigorriko kontzertua, berriz, berezia izango da, bertan *Sasitik Sasira* Eltzegor taldeko kantaren bertsio berria estreinatuko baita.

Nortzuk zaudete antolakuntzaren atzean?

Gure inguruko senide eta lagunez gain,

Aurreko edizioetako irudiak.
URMUGA.EUS



Urmuga igarotzen den herrietako eragile eta herritarrek ere parte hartzen dute antolakuntzan: mendi elkarteak, abesbatzak, musika bandak... Sare horri esker ateratzen da Urmuga aurrera. Haiek dira herria eta ingurua ezagutzen dutenak, eta kontzertuak egiteko baso, jauregi edo zelai politak non dauden haiek dakite ondoen. Jende horri esker lortzen ditugu, besteak beste, lotarako edo afaltzeko lekuak.

Nork hartzen du parte Urmugan?

Bi urmugalari mota daude: kontzertuetara baino joaten ez direnak eta mendi ibilaldia ere egiten dutenak. Kontzertuak naturaguneetan egiten direnez, hara iristeko ere beti ibili behar izaten da pixka bat. Eta mendi ibilaldia egiten dutenen artean denetarik dago, egun bakarreko ibilaldia egiten dutenak edo astebete gurekin igarotzen dutenak.

Zein dira transmititu nahi dituzuen balioak?

Nazio bat garela da Urmugak plazaratzen duen ideia nagusia; Euskal Herria izan badela, nahiz hiru administrazioetan zatituta egon. Ur-muga, uren bana-

“Urmugak euskaraz egiten du berba. Hala ere, bestelako hizkuntzak hitz egiten dituztenak ere gonbidatuta daude parte hartzera”



tzaile bada ere, ez da nazio honen muga. Alderantziz, guretzat ertza da hari bat, eta hari horrekin, mendizaletasunarekin eta musikarekin herria josi nahi dugu. Urmugaren iparra hegoarekin eta mendebala ekialdearekin. Eta ertz hori muga ez den gisan, hiru administrazioen arteko mugak ere ez dira muga gure naziorako. Horren gainetik bizi da gure komunitatea.

Beste ezaugarri garrantzitsua dugu kultura, musika gure kasuan, ahantzitako herri txikietara eramatea. Hirietako kontzertu erraldioen garaiotan, Urmu-

gak musika ona eta berezia herrietara eraman nahi du; poparen, rockaren edo harizko orkestra baten abaroan sortutako musikaz busti nahi ditu gure geografiako herriak. Gaur egun herri txikietako despopulazioa arazo sozial larria da, eta horrek beste arazo batzuk ekartzen ditu, tartean euskal nortasunaren galera. Gainera, AHT bezalako proiektuek joera horiek bizkortu egingo dituzte. Urmugak landa herrietara jotzen du, eta haiei eta bertako biztanleei erreparatzen die.

Mendizaleok oinez josiko ditugu Urduña, Otxandio, Araia, Aramaio, Zegama, Aldatz, Orbaizeta, Baigorri eta Izaba, eta herri horietan ez da musikarik faltako. Hori guztia balizkotik baiezkora eramateko, boluntarioen lana azpimarratu beharra dago. Gordejuela, Arburu, Biddart, Zabala, Balanzategi... Abizen horien atzean pertsona dotore eta eskuzabalak daude.

Azkenik, hizkuntza kontua ere bada Urmuga. Euskara da ekimenaren ardatzean dagoen hizkuntza, Urmugak euskaraz egiten du berba. Hala ere, bestelako hizkuntzak hitz egiten dituztenak ere gonbidatuta daude parte hartzera, ongi etorriak izango dira. ●

EKOFEMINISMOAK KONPOS(T)ATZEN EUSKAL HERRIAN



EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA
MIRENE BEGIRISTAIN ETA MARTA BARBA

Sumendi gune okupatua. Gasteiz. 2023ko ekainaren 29an. 9:00ak dira eta lehenengo partaideak ailegatzten hasiak dira. UEUko ki-deak, antolatzaileak, eta gertuko lagun-tzaileak dagoeneko espazioa txukuntzen gabilta. Berehala egiten dugu espazioa gure, edo espazioak gu bere; erraza egiten zaigu bertan mimetizatzea, eta berri-ketaren epelean berotzen goaz.

Ekologia bada "etxearen tratatua" edo "bizi den espazioaren logika", eta etxea "lurra-lurralde-etxea" hirukotera zabal-tzen badugu, ekofeminismoa etxe zabal honetan gertatzen diren (botere)harremanez mintzo zaigu, baita harreman horietan bizitzak eta biziak duten tokiaz ere; horrela eman digu Isabel Dominga Hernándezek ekofeminismoaren defini-zio zuzen, erraz, ulergarri eta lurtarra.

Eta nola gauzatzen da eta gauzatu da gurean, Euskal Herrian? Marta Luxánek Itoitzen kontrako borrokara eraman gaitu eta proiektu handi horren kontra-ko ekintza ez-mistoen berri eman digu. Hasiak gara ekofeminismoek Euskal Herrian izan dituzten ibilbideak marrazten eta genealogia posibleak irudikatzen.

Lehenengo bi hitz-hartze horietatik aurrera, bideak eta gaiak biderkatzen doaz, nahiz zenbait elementu errepika-korki agertzen zaizkigun. Nagusienetako bat, landa-eremuaren zentralitate eta etorkizun ekofeminista baterako; landa ere-mua ustiatzeko gunea izan ordez bizitzaren erdigune bilakatzeko. Mugak, Euskal Herriko iparralde eta hegoaldearen arteko (ez)harremanak, feminismoak zer irakatsi dakiokkeen ekologismoari, eta ekologismoak feminismoari, eta Hegoalde Global eta Iparralde Globalaren arteko mugak eta botere-harremanak. Eta hizkuntza? "Euskarak hizkuntza nazio-nala behar du" diosku Isabelek. Energia,



aurreko guztiari buruz mintzo zaiguna: "Baliabide fosilen agortzeak kezkatzen gaituen bezainbeste kezkatu bagintu energia-merkatuaren atzean dauden pertsona- eta lurralde-ustiapenak", interpelatzen gaitu Estitxu Villamorrek. Eta hiria? Miren Vivesek etorkizunean nahi dugun hiria irudikatzeko ariketa egitera gonbidatu gaitu, gaur irudikat-zeraz ze gertaera emango lirakekeen hiri horretan, nola mugitzen garen, nore-kin mintzatzen gara kalera jaisterakoan, etxepean...

Osagaiak lehenagotik identifikatuta genituela ohartzen gara. Edonola, ekofeminismoa ez dago sendoki egituratuta gurean. Gutako gutxi sentitzen da horren parte, are gutxiago zilegi horretaz hitz egiteko. Baina denok badugu horre-

kiko kezka eta grina, eta gure hitz guz-tiek badute asko aritzetik, harilkatzetik, hausnarketatik, konpromisotik, eralda-keta gogotik. Aukera anitzeko puzzlea konposatzen hasi gara, kolektiboki. Eta osagaiak konfiantzaren eta grinaren be-rotasunean konpostatzen hasi gara da-goenean.

Balorazioei eta nahiei eskaini diegun tartean, airean "espazio" hitza nabar-mendu da. Espazio fisikoa. Edo denbo-ran tarte bat. Edo espazio kolektibo bat. Talde bat. Topaketa bat. Airetik lurrera, uztailaren amaieran Iraultza Txikien Akanpadan berriz elkartzeko eta kon-pos(t)atzen jarraitzeko espazio-aukera dugu. Osagaiei berriz buelta eman, ai-reztatu, nahastu, eta eraldatzen jarrai-tzeko. ●

BARATXURIA ETXERA ETA PORRUA LURRERA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Santixabel, baratxuria etxera eta porrua lurrera, garaiko lanen esatera. Iaz sasoi honetan landatutako porruen (*Allium porrum*) loreak bizi-bizi daude eta laster haziak jasoko ditugu, hurrengo urtean landatuko ditugunak sortzeko. Porruak bi urteko zikloa du; urte oso bat baino gehiago bere bizitza burutzeko. Ohiko zikloa da: otsailan erein, ekain amaieran edo uztailan landatu eta hurrengo urteko ekainean gara muturrean lore multzoa zabalduko du eta uztaila amaieran haziak helduta jasotzeko moduan izango dira. Denetara hemezortzi hilabeteko bizialdia.

Bere senide baratxuriaren biziara motzagoa da, zortzi-bederatzi bat hilabetekoa. Udazkenaren amaieran ereindakolantatutako baratxuria (*Allium sativum*) orain jaso eta urte guztian gozatuko da. Erein edo landatu, zalantza modernoa da; berez baratxuriaren atala edo begia sartzen da lurrera hazi eta buru berria eman dezan. Ez da hazia ereiten dena, baina haziaren pareko lana egiten du begiak ere: lurpean sartu eta landare bat emango du. Patatarekin (*Solanum tuberosum*) gauza bera gertatzen da, "patata erein" eta "hazitarako patata" esaten dira. Hazia beharrezko landare zati bat sartzen denez, landatu esan behar ote dugu? Ni "erein" esatearen aldekoa naiz, beti entzun izan dugun bezala. Hizkuntzalariek sartu beharko lukete hemen mingaina, baina "erein" hitzak adierazten duena hazien ereintza soila baino zabalagoa dela uste dut nik.

Orain da bai baratxuri uztaldia edo ereizioa. "Ereizio" ereingiroari edo ereintzari ere esaten zaiola jaso dago (Izeta, Azkue...). Orain baina uzta jasotzea da,



RAFAEL SANZ LOBATO

Baratxuri salmenta, 1966ko San Ferminetan.

udazkenean erein ziren baratxuriaren buruak jasotzea. Baratxuria ondo burutzeara nahi bada, neguko hotzak lurrean igaro behar ditu; hotzaldiak zailduta hobeto burutuko da. Azaro-abenduak dira garairik egokienak. Orain, egun luzeenetako beroarekin eta lehortearrekin, hiruak-launaka, hosto-zimak korapilatzen dira, energia apurrak beheko buruan bildu daitezten; egun batzuk geroago, lurretik atera, ondo lehortzen utzi, sustrai arteko lur arrastoak ondo garbitu, kordan txirikordatu eta zintzilik jarriko dira ondo haizeberritzen den toki fresko eta ilun batean.

Bi baratzion familia osoak ezaugarri eder bat du: usaina. Tipularekin (*Allium cepa*) hirukote nagusia osatzen dute baina oso zabala da. Gogoan izan batez ere baratxuriaren eta tipularen usaina. Ba orain bilduko ditugun baratxuriak jateko bezala osagai usaintsu horiek dituela eta

baratzean intsektuak uxatzeko erabili ahalko ditugu. Hemen intsektuak uxatzeko bi formula. Lehena: txikitu bost baratxuri begi eta irakin litro erdi uretan 15 minutuz, iragazi eta erantsi 50 mililitro ozpin. Bigarrena: eduki bost begi 70º gradu edo gehiagoko 100 mililitro alkoholatan egun betez, erantsi litro erdi bat ur eta ihintztagailura. Eta fris-fris landareetako intsektu kaltegarri. Erantsi bieie xaboi ttantta bana, ahal bada potasikoa. Toki ilunean hilabete pare bat iraungo dute. Ahal bada erabili euri ura.

Gure baratzean sataginak etxean bezala dabilta eta bihotzeko dalien (*Dahlia pinnata*) tuberkuluak oso-osorik jaten dituzte. Aurten dalia guztiak buelta osoan baratxuri begiz inguratuta erein ditut. Hurrengo udaberrian jakingo dugu sataginek baratxuria maite duten edo ez, eta nik daliak berriz ikusiko ote ditudan... ●

HERRIKO OGIA

“ARTOA BAKARRIK ZEN TOKIAN GARIA ERE SARTZEA ETA DIBERTSIFIKATZEA DA ASMOA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2009an sortu zuten Herriko Ogia proiektua Ipar Euskal Herrian, ordu arte inguru hartan gutxi egiten zen garia ekoizten hasteko, eta horrekin, laboreen errotazioak eta agronomia mailan interesgarriak ziren beste elementuak bultzatzeko asmoz. Dibertsifikaziorantz pausoak ematea bazen helburuetako bat, baina ez bakarria. Iparraldeko lurretan ekoiztutako osagaiekin egindako ogia ere lortu nahi zuten. Laborari talde batek eta bi eiherazainek bultzatu zuten proiektua, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laguntzarekin, eta Uztartu elikagaien klusterraren baitan kokatua da.

%100 IPAR EUSKAL HERRIKO OGIA

Hastapenean bi laborari izan ziren proiektuan hasi zirenak, garia ekoizten, lau hektareako lursailean. “Iparraldean garia egitea ez da urtero erraza izaten, klima ez baita beti egokia”, dio Emmanuelle Bonus teknikariak. Ekoizpenari 2009an ekin bazioten ere, 2013an lortu zuten nahikoa gari ekoiztea, lehenbizikoz Herriko Ogia egin eta saltzera ateratzeko. “Denbora behar izan zen ohartzeko zein bariedade behar ziren, nork bilduko zituen, nork biltegitatu... funtsean, saila pixka bat ekoiztatzeko”, gehitu du.

Lehen uztatik, baina, laborari gehiago ere proiektura batzen joan dira, eta galsoro hektarea gehiago jartzen. 2013an,



esaterako, 40 hektareatan ari ziren garia ekoizten, eta 2021ean, berriz, bederatzita laborari ziren proiektuan, 91 hektarea gari lantzen, eta 500 tona ogi atera ziren produkzio horretatik. Aurten, hamabost dira egitasmoan ari diren laborariak, eta guztira 107 hektarea landu dituzte. “Orain arte bi irin eihera aritzen ziren garia irintzen, bata Uztaritzen eta bestea Maulen, baina iaz Uztaritzeko enpresa desegin zen, eta horregatik, bolumen garapen logika hautsia izan da eta berriz ekoiztatzeko ari gara”, dio. Proze-

su osoa Euskal Herrian egiten dute, biltegitratzea kenduta. “%100 Ipar Euskal Herriko irina da eta aitzineko uztatik beti uzten da zati bat ondoko urtea txarra bada hori erabiltzeko”.


10. URTEURREN OSPAKIZUNETAN

Herriko Ogian parte hartzen duten ekoizleak ez dira eredu ekologikoan ari, baina jasangarritasunari begirako irizpide zorrotzak ezarriak dituzte elkartetik: ze bariedade erabili daitezkeen, gutxienez bi bariedade nahasi beharra, nitrogeno mugatzeko fertilizazio plana, erabili daitezkeen ongari kopurua... “Esaterako, in-tsektizidak debekatuta daude, eta pestizidak ere oso neurri txikian erabil daitezke, egoera konkretuetan eta tratamendu moduan bakarrik, ez era prebentiboan”, adierazi du. Prezioak ere elkartetik finkatzen dituzte; normalki burtsako gari tonaren prezioari 20 euro gehitzen dizkiote, baina kalitate-prezio apaleko urteetan, aurtengoa kasu, prezio minimo bat dute adostua: 250 euro tonako. Ohiko enpresek laborariari 210 inguru ordaintzen dizkiotela azaldu digu teknikariak, beraz, ia beti aukera hobea da Herriko Ogian parte hartzea laborariarentzat.

Hamar urte bete ditu aurten Herriko Ogiak, eta proiektuaren urteurren ospakizun betean harrapatu ditugu, uztailearen 6an Bardozen ospatu baitute hamarkada. Bada, beste hainbeste bete ditzatela! ●

Hamar urte bete ditu aurten Herriko Ogiak, eta proiektuaren urteurren ospakizun betean harrapatu ditugu, uztailearen 6an Bardozen ospatu baitute hamarkada. Bada, beste hainbeste bete ditzatela! ●

Alemayehu printzearen tristura



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Abisiniak, 1868. Britainiar ejertzitoak afrikar inperioa eraso zuen, Teodoro II.a enperadoreak zigortzeko eta, bide batez, Europako beste potentzien aurrean indar erakustaldia egiteko. Britainiarrek Magdala hiria sarraskitu eta espoliatu zuten. Teodoro enperadoreak bere buruaz beste egin zuen, baina britainiarrek Tiruwork Wube enperatriza eta haren seme Alemayehu printzea bahitu eta Britainia Handira eraman zituzten, Abisiniako ondarearen zati handi batekin batera. Enperatriza bidean hil zen. Printzeak zazpi urte zituen.

Viktoria erreginak mutikoaren begitarte malenkoniatsua nabarmendu zuen ezagutu zuenean. Tristam Speedy kapitainaren esku utzi zuen haren heziketa. Speedyk munduan zehar bidaiatu zuen mutikoarekin batera, maskota bat bailitzan ia. Hurrena, errege familiak printze afrikarrak heziketa formala jaso behar zuela erabaki zuen. Errugbi eskola pribatuan sartu zuten lehenik eta, gero, Sandhursteko akademia militarrean; bietan jazarpen bortitza jasan behar izan zuen Alemayehuk.

18 urte bete zituenean, errege familiaren mantenua galdu zuen eta Leedsera eraman zuten, Arthur Ransome doktorearen etxera. Handik gutxira hil zen, pleuresiak jota.

“Hain da tristea! Bakarrrik, herrialde arrotz batean, seniderik gabe. Ez zuen



VICTORIA AND ALBERT MUSEUM

Abisiniako Alemayehu printzea, Britainia Handira iritsi berritan. Aurpegiera triste bera dauka hil artean atera zizkioten gainerako argazkietan ere.

bizitza zoriontsua izan. Hain zen sentibera, beti pentsatzen zuen jendeak gaizki begiratzen ziola bere azalaren koloreagatik”, idatzi zuen Viktoria erreginak bere egunerokoan, printzearen zorigaitzean inolako erantzukizunik ez balu bezala, eta jasandako erasoak mutikoaren irudipena balira bezala.

Alemayehu Windsor gazteluan ehortzi zuten, baina ez errege kriptan, aldame-neko katakunbetan baizik. Karlos III.a

errege koroatu berriak iragan kolonialista erreparatzeko asmo onak, hitzez behintzat, adierazi izana baliatu dute Alemayehuren familiaren oinordekoek eta Etiopiako ordezkariak enegarren aldiz eskatzeko printzearen arrastoak jaioterriara itzul ditzaten. Eta enegarren aldiz, eskaera ukatu diete, “hildakoen duintasuna zaintzeko erantzukizuna” argudiatuz; “soilik hildako batzuen duintasuna” ñabardura egitea ahaztu zaie. ●



Esklabo jabeen oinordekoak boterean

Reuters agentziak argitaratu berri duen ikerlan baten arabera, AEBetako politikari asko esklabo jabeen oinordekoak dira; 100dik gora kongresukidek eta gutxienez Auzitegi Goreneko bi kidek arbazo esklabistak dituzte. Horietako bat da Julia Brownley Kaliforniako kongresukide demokrata. Familiaren iragan esklabistaren berri izateak sakonki eragin

diola adierazi du, baina funtsezkoa dela iragan horren aitortza egitea. Ikerlanean parte hartu duten adituen helburua ez da inor pertsonalki seinalatzea, baina esklabotzak oraindik egungo politikan duen eragina nabarmendu dute: AEBetako Kongresuan ere badira esklaboen oinordeko bakan batzuk, baina esklabo jabeen oinordekoak baino askoz gutxiago dira. ●

ERREDAKZIOA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Aitor Gurrutxaga (ezkerrean) eta Ilargi Manzanares (eskuinean) ekainetik abuztura arte ari dira ARGIAko erredakzioan praktikak egiten.

Kazetaritza eginez ikasten da

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ai, ai, hik lan eta nik jai!", lagun batek baino gehiagok kantatuko diete aurtengo udan Ilargi Manzanaresi eta Aitor Gurrutxagari. ARGIA praktikan ariko dira datozen bi hilabeteotan –ekainean hasi eta abuztura arte–, jada martxa hartuta dute eta beraiekin hitz egin dugu, beti egiten dugun moduan, jakite aldera nondik datozen, nora doazen –edo joan nahiko luketen, bederen–, zergatik aukeratu duten gure etxea...

Bukatu berriak dituzte unibertsitate ikasketak. Manzanaresek filosofiako gradua eta Gurrutxagak, berriz, kazetaritzakoa. Bigarren hau ibilia da beste arlo batzuetan lanean, baina lehen aldia da bientzat kazetaritza lanetan jardutea. "Filosofia ikasketek ez dute lotura zuzen-

nik kazetaritzarekin, baina beti iruditu izan zait lan interesgarria, asko ikasteko balio duena, eta horregatik eman nuen izena praktikak egiteko", azaldu du Manzanaresek. "Kanpotik ikusita behintzat, kazetaritza independentea egiten duen hedabide bakarrenetako delat dirudi ARGIAk, eta horregatik aukeratu nuen. Gainontzekoek alderdi instituzionalekin zuzeneko harremana dute eta haien interes eta agendari erantzuten diete", azpimarratu digu Gurrutxagak.

Egiten ari diren lanarekin eta ARGIA topatu duten "giroarekin gustura" daudela esan digute biek; "gustuko gaiak lantzen ditugu eta eroso sentitzen gara". Ilargi kultur arloan aritzen da pozik, "betidanik" izan omen du gaiaren inguruko zaletasuna eta, ahal dela, horretara

jotzen du. Aitorrek, berriz, "kaleko politikara" jotzen du: "gehiegi erreparatzen zaio politika instituzionalari, eta gutxiegi 'kaleko'-ari. Hainbat eta hainbat dira Euskal Herrian egunerokotasunean politika independenteki egiten dutenak, eta komunikabideek arreta gutxiegi jartzen dute haiengan. Niri interesa pizten didate gai horiek", dio.

Eta gero zer? Galderari ziurgabetasunez erantzuten diote. Manzanaresek lotuta du datorren irailean egingo duena, filosofiari lotutako master bat egitera joango baita Madrilera "baina ez dut gerorako plan berezirik, nire kabuz idazten eta ikasten jarraitu nahi dut", azaldu digu. Gurrutxagak ere ez du baztertzen masterren bat egitea, ez eta kazetaritzaren bidean jarraitzea ere. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Solway multinazionalaren mehatxuen kontra laguntza emateko."

Arrigorriagatik Andonik

"Kazetaritza enpresa handien esku ez egoteko."

Gasteiztik Sergiok

"Euskal kazetaritza independenteari bultzada ematearren."

Zarauztik Igorrek

"Multinazional batek ARGIAri mehatxu egin diolako. Handiak txikia zapaltzen."

Bilbotik Mirenek

TAMAINAKO AITORTZA

Azpimarratzekoa da Anjel Lertxundik euskal letrei egin dien ekarpena. Paperera eramandako literatura dago batetik, zineman proiektatutako letrak bestetik, baita komikian edo zutabegile moduan argitara emandako pentsaerak ere. EHUren Uda Ikastaroetan, Alex Gurrutxagaren eta Beatriz Zabalondoren gidaritzapean antolatu diren jardunaldietan, Lertxundiren idazle sena eta haren obra izan dute aztergai Miramar Jauregian. Kontxako Badiara begirako suite-an, bakoitzak beretik, mintzaira ederrean hitz egin dute Anduren inguruan; luxuzko *captatio benevolentiae*-ak denak.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ENEKO GOIKOETXEA

Norbaiten izateari eta obrari gorazarre egiteko, haren lanak eta haren ekarpenak aztertzeke, normalean, hil arte itxaron ohi du gizarte honek, akaso, behin pertsona zenduta, gauza onak erraz asko esaten direlako. Eta geroz eta gehiago luzatu denboran, orduan eta errazagoa izan ohi da kritiketarako aukera zabal-tzea –halakorik ez legoke gaizki artista baten obra zintzoki aztertu nahi bada, joera argia baitu herri honek laudorio-
tara soilik mugatzeko, eta oso ondo dago, baina bistan da, inork ez du dena ongi egiten, eta ongi etor bedi kritika–.

Kontua da, Anjel Lertxundiren obra aztertu dela Anjel Lertxundi bera presente egonda saio guztietan. Eta nola ez, adi-adi erreparatu die bere obraz mintzo ziren hizlarien esanei. Bueltan haiek ere bai berari, buruarekin gora eta behera edo ezker-eskuin egiten ote zuen frogatzeko. Lotsa eta urduritasun partekatua, beraz. Laudorioak entzun dira, kritikaren bat ere bai, genero oreka apalari apun-
ten bat. Estimatzekoa zintzotasuna.

Hamaika hanka ditu Lertxundiren ibilbideak, eta horiez hitz egiteko, hamaika gonbidatu pasatu dira ekainaren 29 eta 30ean Miramar Jauregitik. Hamaika hanka, punta batekoa bakoitza, eta elkarren osagarri ere bai aldi berean, transbertsalak direlako asko. Itzala utzi du Lertxun-

dik, eta itzala utziko du oraindik ere.

“Ahal zidaten González abizena jarri. Gogoratuko duzue: Arkonada eta gero Realera iritsi zen atezaina zen González. Oso ona zen egia esan, baina itzal handia zeukan, Arkonada, eta egia esan, aspaldian, inork ez du bera gogoan”. Horrela, ongi ekin zion hitzartzeari Andoni Egañak eta ezin hobe deskribatu zuen handi bati jarraipena egitearen enkargua jasotzea zer den. Egañak, plazaz plaza aritzeaz gain, besteak beste, azken urteotan, luma astintzen du egunero *Berría* egunkarian. Ikastolan irakasle izan zuen Anjel Lertxundiri eman zion erreleboa duela sei bat urte, egunkariko arduradunek eskatu baitzioten Anduk makina bat urtez egindako zutabeari nolabaiteko jarraipena emateko –“eman ahal bazaio” hamabost urte hain era ederrean egin dituen norbaiti–. Horixe bera zioen Egañak, González atezainaren antzera, ez ote zen bera ere itzalean geratuko.

Zutabegintzaren alorrean bederen, Egañaren erreferente izan da Anjel Lertxundi. Egun, sail eta forma propioak oso bere ditu Egañak, baina hartu dizkio zenbait joera Lertxundiri, idazterakoan, esaterako. Goizean jaiki, kasurik one-
nean Zarauzko malekoitik paseoa eman, etxera itzuli eta idaztera jarri, egunean egunekoa idatzi. “Autokonfiantza handia behar da horretarako, e, Andu?!”. Goi-

zeko hamarretarako, entregatuta eduki mila eta ehun karaktereko testua. Okupazio handia ez, berez, baina okupazioa preokupazio bilakatu daitekeela nabarmentu du, aparteko gaitasunik ez bada hori gainditzeko.

Egañaren arabera, Lertxundik badu “idazle giharra” eta erakutsi du hamabost urtetan idatzi dituen zutabeetan. Fikziorik errealistena sortzeko gaitasuna du. Ipuin kutsuko istorioa kontatu, hura irauli eta irakurleari galderak sorrarazi; hori guztia, lerro gutxi batzuetan. Hitzak hitzekin lotzeak baitu grazia, eta ez hitzek eurek soltean. Zer kontu ere badu Lertxundik, “almazen sakon eta atondua” baitu. Gero, kontatu duena benetan jazo zaion ala asmatu duen, irakurleak pentsa dezala. Eta asmakizunekin berdin, norberak deszifra ditzala. Baina oinak lurrean izan ditu beti Lertxundik, eta ez da gehiegi aldendu irakurlearen posiziotik.

“BERE TESTUA PROBLEMA BESTERIK EZ DA”

Zutabeak irakurtzen dituenak irakurtzen ditu eta irakurri nahi ez dituenak orria pasatzea erabakitzen du. Baina nahitaez, ezinbestean, Lertxundiren testuekin lan egin behar duenak, zer erremedio du?

Antton Olariaga ilustratzaile eta marrazkigileak argi du: “Ez dakizue ondo zer den idazle batek, eta zer esanik ez Anduk,



Anjel Lertxundi azalpenak ematen, Danele Sarriugartek luzatutako galderei erantzuten.

testuak zuri bidaltzea, gero zuk irudiak egiteko". Ironia eta seriotasun tonua maisuki eta ohikoa duen eran nahasi zituen Olariagak, eta Lertxundiri jaurti zizkion labankada eta labankada artean maitasun keinuak oso bistakoak izan ziren. Serio jarrita, hatza altxatu eta jendeari begirata, honela esan zuen: "Tipo honi esker ez balitz, ez zen halako fikziorik sortuko euskaraz. Beraz, Andu, eskerrik asko".

Idazlearen eta ilustratzailearen arteko harremanaz mintzatu zen Olariaga, eta hainbat aholku eta azalpen eman zituen hitzetatik irudietara ideiak eramateko. "Izenei ez egin kasurik, eta adjektiboei gutxiago; bide okerrera garamatzate eta enbarazu egiten dute, ez dute ezertarako balio. Erreparatu behar diegu pertsonaia horien ekintzei, sentimenduei, hitz egiteko moduei".

Horrez gain, idazleak idatzitakotik harago ere sortu daitekeela defendatzen du Olariagak, eta hori kontatzeko, anekdota bat baliatu zuen, Lertxundirekin izandakoa. Ume baten alboan zakur bat txisa egiten marraztu zuen behin Olariagak,

nahiz Lertxundik zakurrik ez zuen aipatzen testu horretan. Harriduraz aipatu omen zion idazleak ilustratzaileari, ea zertan ari zen. "Axola al du? Umeei gehiago gustatu baietz irudi hau". Erakargarritasunaren alde, testua mantenduta betiere, sortzearen aldekoa da Olariaga.

"IDAZLE KANONIKOA ETA APALA"

Andoni Egaña bezala, Anjel Lertxundiren ikasle izan zen Nerea Arruti ere, eta hortik datorkio literaturarako sena, hura zelako "gure territorio libre bakarra"; "literatura da aske izateko territorio bakarra Anjel Lertxundiren literaturan".

EHUko irakaslea eta literatur kritikaria da Arruti, baina kosta egiten zaio "beharko lukeen satellite izaerari" eustea: "Literatur kritikariak garenok, nahitaez, distantzia mantendu behar dugu. Baina Anjel Lertxundirenganako distantzia mantentzea ez zait batere erraza; niretzat, Anjel Lertxundi ez baita Anjel Lertxundi, Andu baizik". Tonu oso intimoan, beraz, oroitu zituen irakurzaletasunean murgiltzera eraman zituen

errudunak: "Akordatzen naiz inoiz izan dudana irakasle talde bikainean ezagutu nuela Andu zuzendari zela: Mariasun Landa, *Txiliku*, Ane Mujika eta beste asko. Akordatzen naiz hezkuntza berri-tzailea, kritikoa eta konfiantzazkoa jaso genuela, hain zuzen ere erretorika hori erabiltzen ez zen garaian".

EHUra itzuli aurretik, Eskoziako Aberdeeneko unibertsitatean literatur arloko irakaslea izan da hainbat urtez Arruti. Bere esanetan, Eskozian badago Irlandako literaturarekiko zaletasun berezia, baita Euskal Herrikoagatik ere, eta zer esanik ez, irakasle euskalduna edukita. Bada, ikasleen eskariei kasu eginda, Lertxundiren obra ingelesez aztertzeke erronka egin zion bere buruari, baina zailtasun ugari topatu zituen bidean: ez dago Lertxundiri buruzko iruzkinik nazioarteko hedabideetan, eta beraz, ezin landu ikasleekin. "Apaleko idazlea da Andu, bistan da. Idazle kanonikoa da: idazleen idazle, nahiz gero bere ibilbide akademikoa ez duen egin izan eredu klasikoan". ●

ERAKUSKETA BILBOKO GUGGENHEIM-EN

EURI MOREA

“Poesiaren bidez ematen diegu izena, poema bihurtu arte izenik eta formarik ez duten ideiei; sortzeke dauden horiei”, hala zioen Audre Lorde poeta feminista eta giza eskubideen aldeko aktibistak. Hitzez, erritmoez eta horien baturaz janzten zuen olerkia, apurka-apurka hitzak forma hartuz joan eta hortik bertsoa sortzen zuen arte. Lynette Yiadom-Boakye margolari eta poetak bide bera hartzen du, eta bere margolanetan errealak ez diren pertsonaiak margotzen ditu. Ez dira existitzen, Yiadom-Boakye-ek bere pintzelekin margolan horietako figurei forma eta izana ematen dizkien arte.

JONE ALAITZ URIARTE

Kanpoan bizi den lagun baten bisita aprobeztatu dugu eta Bilboko Guggenheim museora etorri gara. Lagunak tita-niozko eraikin itzela sekula zapaldu ez, eta dozenaka eta dozenaka bisitarirekin batera sartu gara lehertzear dagoen atrio nagusira. Hiru artista hauen erakusketak bisita daitezke: Joan Miró, Oskar Kokoshka eta Lynette Yiadom-Boakye. Zalantzarako tarterik hartu gabe, zuzenean joan gara margolari ingelesaren lana lehenbizkoz ikustera –bisitari gutxien dituen mostra ere bada-. Lehen kolpean, oliba-berde kolorez margotutako horma makurretan topatu ditugun tamaina handiko mihiseek piztu digute atentzioa. Koadroak tonalitate ilunez margotuta daude eta edozelako iragankortasun zeinuetatik at dauden erretratuz josiak; galerietan barrena paseatuta pentsatu dugu pertsonaia horien guztien begiradak gure gainean daudela. Erretratua hitza erabili dugu, baina ez da adiera gutiz zuzena: Yiadom-Boakye-ek

ez ditu bere modeloak erretratatzeko, ez dago modelorik, ez dago inor parean, bere oroimenean dauden irudietatik, albumetatik eta ebakigarrietatik sortzen ditu bere figurak. Forma figuratibo horiek pertsonalitate sendokoak dira eta ñabarduretan hain dira aberatsak, non kosta egiten den sinestea modelo bako erretratuak direla. Hor dago erakusketa honen gakoa.

Lynette Yiadom-Boakye (Londres, 1977) margolaria da, baita idazlea ere, eta Guggenheimen estreinatzen duen bakarkako erakusketa mugarrria da museoaren historian. Izan ere, gutxi dira bakarkako erakusketa bat izan duten artista gaztea –bera da bigarrena Cristina Iglesiasen ondoren; Guggenheim baterako, oso gazte-. *Hala-ko ilunabar bizirik* izenburupean biltzen dira Lynette Yiadom-Boakye azken hiru urteotan egindako 70 bat lan. Konfina-



'Extasi korronteak' 2021.

LYNETTE YIADOM-BOAKYE

mendua, eta bere kasuan, konfinamenduak ekarri zion bakardadean sortutako olioizko margolanak dira, pintzelada azkarrekoak, trazu dinamikodunak, eta gehientsuenetan, tonu ilunekoak. Objek-



'Bihotzen gainean eta adimenaren azpian' 2021.

LYNETTE YIADOM-BOAKYE

tu figuratiboak gailentzen dira margolanetan, gizonetako eta emakumezkoak ageri dira elkarri eragiten, eroso, gustura, irribarretsu, dantzari askotan. Kolore biziko txoriak, erreflexu distiratsuko arrain urdinxkak, trama ugariko alfonbra iletsuak edota koadroaren hondoan desegindako ohea dira pintura hauetan aurkitu ditzakegun apaingarri eta atrezzoak. Obren izenburuei dagokienez, margolanen azken pintzelada bat dira, eta ez obra deskribatzerako datozen testuak, obraren osagai zatietatik baizik.

Lagunari esan diot kostatzen zaiadala leku eta denbora batean kokatzea ikusten ditudan figurak. Haietako asko, etxeko epeltasunean margotzen ditu, oinutsik, alkandorarik gabe, musika entzuten edo koreografia bat entseatzeko; eta koadro multzoak sortzen duen giroak balizko New Orleans batera narama, in-

probisatutako musika doinuen arintasun eta melodiekin. Musika irradiatzen duten pinturak dira, eta antza, Miles Davies-en *Sketches of Spain* ("Espainiako zirriborroak") albuma bidelagun izan du artistak erakusketa hau prestatzen zuen bitartean; nik ere hala daukat testu hau idazten dudala. Baina ez soilik Davies; Prince, Nina Simone edota Aretha Franklinen melodia itsaskorrek obra bat bestarekin lotzen duen pentagrama bat izan zitekeen. Erakusketara sartu eta artistak propio sortu duen playlist bat dago entzungai, eta polita da areto haueetatik paseatzea Princeren *I only wanted to one time to see you laughing / I only wanted to see you / Laughing in the purple rain* abestuta.

Artistaren memorian izoztuta iraunduten irudi puskez osatutako eszenak margotzen ditu, mihisearen gainean for-

ma hartzen dihoazen bizipen eta sentimenduak dira. Obra pertsonala da Yiadom-Boakye-ek sortzen duena, bere errealitatea eta testuingurua islatzen ditu bere obretan. Horregatik, besteak beste, margotzen dituen figura guztiak dira beltzak, hala delako bere familia eta ingurua. Zuriak balira, ez liguke atentziarik deituko, ez genuke detaile hori testu honetan jasoko ere, hots, margotzen dituen figura guzti-guztiak direla beltzak. Zentzu honetan, artistari bere obra arrazakeriaren prisma irakurri behar ote den galdetzen diotenean, berak ezetz dio, berak margotzen duena bizi duen mundua besterik ez dela, ez dagoela ezer berezirik horretan. Bere obra, beraz, ez dago ikuspuntu politiko batetik sortua, ez behintzat bereziki politiko batetik, bere inguruak sortzen dion bulkada horretatik abiatuta margotzen du.

Frank Gehryk proiektatu zituen horma kurboetan mihiseak zintzilikatzeak badu bere misterioa, horregatik, hormetatik ihes egiten duten egitura batzuk sortu ditu artistak koadroak tente ikus daitezkeen eta erretratatuaren begirada gu-rearekin gurutzatu dadin. Sarri aipatu du Yiadom-Boakye-ek pazientzia gutxiko artista dela, beharbada horregatik, mihi-se eta linozko oihaletan uzten dituen marka azkarregatik. Marroiak, beltzak, urdin ilunak nabarmentzen diren mihiseetan, ikaragarri ederra ikusten da horiz margotutako lanpara, tonu laranja dituen kiroleko kamiseta edo mutil gazte dotoreak daraman jaka morea. Paleta kromatikoa konbinaketa honek margolana barru-barrutik argizatzen du, koadroari bizitasuna eta protagonistei arima emanda.

Koadro gehientsuenetan gizonetakoak ageri dira, batzuetan bakarrik daude, beste batzuetan, bikoteka, baina sekula ez emakumezko batekin. Emakumezkoak nabarmen gutxiago dira eta horren gainean galdetu zaioenean, beste behin ere, ea bere obra genero ikuspegitik irakurri behar den, erantzuna ezezkoa da, ez dagoela tankera honetako hautu politikorik bere obran. Irudi irekiak dira, norberak bere irakurketak egin ditzan. Margolanekin batera, paper gainean egindako obra ere badago, klariona eta ikatz-ziriaz egindako marrazkiak dira, lehen aldiz erakutsitakoak. Kolorearen ausentzia, ikatz-ziriaren trazuak, eta trazu eder horrek sortzen dituen forma figuratiboak, artistaren berezko tre-bezia, berriro ere, aurrez aurre jartzen zaizkigu. ●



LIBURUA

Txiza, zirimiria ala waterboardinga



SUSA

SU FESTAK

JON URZELAI URBIETA

SUSA, 2023

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Txiza egiten digute eta zirimiria dela diote. Izan ere, Bilbao BBK Live ezin da bere horretan ulertu. Pakete berean doaz Mediateka BBK, BBK Kuna, BBK Sala, BBkatea Arte Ederren Museoan, Bilbao Bizkaia Pride, BBK Klima, BBK Ja! Bilbao Saria, BBK gutun zuria Bilbao Saria eta zerrenda amaigabea da. Zirimiria dela diote baina benetan *waterboardinga* da.

Besteren artean BBK Livez hitz egiten digu Jon Urzelaik *Su festak* liburuan. Susak argitaratu dio lana, Zarauzko argitaletxeak badu-eta, heterodoxia literarioaz gaindi, saiakera bilduma. BBK Live bezalakoez hitz egiten digu Urzelaik XXI. mendeko Euskal Herriko musika jaialdiez diharduelako, baita gure musika eszenaren luze-zabalaz.

Bada, liburuan aurkituko ditugu euskal kulturaren mapa osoagoa ulertzeko klabeak ere.

Ni neu, BBK pakete osoa ezin burutik kendu aritu naiz irakurri ahala. Ezin burutik kendu BBK barne-hartzen duen Kutxabank izan zela 2008ko krisian gehien etxegabetu zuenetakoa eta hipoteka berankorrek funts putreei erreparorik gabe saldu zizkiena. Ezin ahaztu Kutxabank dela kasta politiko, enpresarial eta finantzieroaentzat lagunkeriaren eta ate birakarien erdiguneetako bat. Esku batekin muturreko prekarizazioa jazartzen dute eta bestearekin kulturari kiribizto bat jarri zuri garesti saltzeko (merkeago turistei).

Jaialdion ifrentzua ere ematen digu Urzelaik eta berariaz arakatzen ditu au-

togestioz, komunitatea oinarri eta sorkuntza erdigunean lan egiten dutenak. Dena ez da turistifikazioaren monokultiboa, gentrifikazioaren estraktibismoa eta higiezinaren espekulazioa. Zein Euskal Herri nahi dugun erabakitzeke gudu zelaietako bat bilakatzen da jaialdien eredu bera.

Nagusitzen ari zaigun ereduaren aurka egin daiteke: gehiengoaren desjabetze kulturalerako logika neoliberalaren eta gutxiengoaren metatze kapitalistaren aurka. Liburutegiak, literatura, aretoak, musika, museoak, arteak, herri mugimenduak: kultur eremu osoa marcatzen dute txizarekin, zirimiria antzera blai bustitzen gaituzte, eta *waterboardingarekin* bezala ito. Horren kontra: okupazioa eta autogestioa. ●



MUSIKA

Bluff galanta



E. MORENO ESQUIBEL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Zalantzarik gabe, Pier Paolo Pasolini bezalako egile enblematiko baten antzezlan bat opera-eremura eramatea ideia bikaina izan daiteke. Pasolini XX. mendeko zinematik handienetakoa dela ere gauza ezaguna da guztiontzat. Joan den mendeko zinemari buruzko liburu bakar batek ere ez dio utziko Bolognako jeinu honi buruz hitz egiteari.

Baina beste kontu bat da pentsatzea artista honen arazo pertsonalek, bere kontraesan izugarriek eta bere erokeriek nolabait pentsarazi diezaguketela artista honek gure gizartera estrapolatzeko moduko filosofia duela.

Eta orain, beste kontu bat: egia da artea hausturaz, desatseginaz, kirrinkariaz balia daitekeela, pentsarazteko eta gure barrua iraultzeko. Baina, era berean, egia da, eta ezin dugu ukatu, batzuetan,

gure beldur eta larritasun guztiak azaleratu nahi dituzten proposamenak feismoan eta ukitu desatseginan geratzen direla, askoz gehiago ekarri gabe.

Gainera, errealitatearen ikuspegi aberasgarria eman beharrean, eskubideak errespetatzen dituen filosofiaren adierazgarri ez den mezua helarazten digu.

Funtsean, Pasoliniren *Orgiak*, Hector Parraren musikarekin eta Calixto Bieitoaren libretoarekin, nire burura ekarri zuten pentsamendu-nahasketa hori guztia.

Programak aipatzen du argudioak gizarte intolerantea, hipokrita, krudela eta mespretxuzkoa salatzen duela ezarritako arauetatik ateratzen diren guztiekin. Horixe da asmoa. Eta 1966. urtean, antzezlan sortu zenean, salaketa hori ikusi ahal izan genuen moduan islatzeak "pase" bat izango luke. Baina 2023an, salaketa hori gizon baten bidez plan-

ORGIA

Pier Paolo Pasoliniren obran oinarritutako ganbera-opera.

MUSIKA: Héctor Parra.

LIBRETOA: Calixto Bieito. Ensemble Intercontemporain.

ZUZENDARIA: Pierre Bleuse.

ESZENOGRAFIA: Calixto Bieito.

BAKARLARIAK: Ausrine Stundyte (sopranoa), Leigh Melrose (baritonoa), Jone Martínez (sopranoa).

LEKUA: Arriaga Antzokia (Bilbo).

DATA: ekainaren 24a.

teatzea, zeinak bere homosexualitateaz ohartuta, emaztea, seme-alabak eta noizean behin entretenitzen zuten prostituta hiltzen dituen, katadura okerrenaren mezu matxista besterik ez da.

Bestalde, antzezpeneren estetika benetan feista zen, eta estetika-eza baino ez zuten transmititzen, bai fisikoa, bai morala. Eskerrak Pierre Bleusek zuzendutako Ensemble Intercontemporain-ek Héctor Parraren partitura monotonoaren interpretazio egokia egin zuten. Eta eskerrak kantari bakarlariek ahots-teknika bikaina erakutsi zuten, batzuetan ezinezkoak ziren posturretan kantatu behar zutela kontuan hartuta. Leigh Melrose baritonoak ahots biribil eta indartsua erakutsi zuten, eta Ausrine Stundytek eta Jone Martinezek kantu eroso eskaini zuten erregistro guztietan. Haiei esker utsi zien emanaldiak. ●



Begira gaudelarik pasatzen den hori

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📹 DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

EHZn inoiz egon denak badaki zer den igandea. Egitarauak zer eka-
rriko, hor egoten gara gu. Aurten,
euria furgonetaren estalpean
egotera gonbidatu gaitu, baina atertu
orduko berriz itzuli gara festaren mui-
nera. Txaranga batek alaitzen ditu az-
ken gaupaseroak. Kafea eskuan, fron-
toiaren erdian den bikoteari so jarri
naiz ni. Bi gizon. Beltzak biak ala biak.
Bakoitzak bere modura, baina estilo
bera daramate gainean, orrazkera bera
ere bai. Aurpegi serioa dute, eta lepotik
beherako gorputz atalak baino ez dituz-
te mugitzen. Elkarriz begiratzen diote.
Urruntzen dira, eta atzera gerturatzen.
Elkarriz heltzen. Begirada ezerezera. Zeri
begira daude? Zer da kontatu nahi di-
gutena?

Ertza konpainiaren *Otempodiz* ikus-
kizuna dela jakin dut gero. Fenias Nhu-
maio eta Deissane Machava dira dantza-
riak, Mozambiketarik etorriak. Nik doinu
afrikarrez bezala sailkatu ditudan abes-
tien erritmora mugitzen dira. Hasieran,
estilo garaikidetik jo dute, *porté*-ak eta
itzulipurdiak lurretik. A, beno, istorio
homoerotiko bat da, pentsatu dut. Baina
gero ez. Gero istorio tristeago bat bu-
ruratu zait. Plaza osoa dute begira (eta
denak gara zuriak bi beltzei begira) eta
gutako bakoitzak kontakizun bat sortu
duelakoan nago.

Bukatu da beste kanta bat, eta hu-
rrerengorekin jantzita daramaten
monoaren goiko aldea kendu dute.
Uuuuuuuuuuu bakan batzuk ere entzun
dira lotsati. Horiek beste pelikula bat

OTEMPODIZ

ERTZA DANTZA KONPAINIA

Uztailaren 2an Irisarrin (Nafarroa
Beherea), EHZ festibalean.

montatuko zuten mozanbiketarren soin
biluzia ikusita. Alaiago ari dira orain,
muskulu denak muturreraino bihurrit-
zen dituzte, eta txaloez lagundu diegu
tragoa lurtean utzita. Txiribueltak ai-
rean dira orain, eta atsegina da irribar-
rez ikustea dantzariak. Baina ulertu
gabe geratu naiz amaitu orduko.

Denborak dio. *Otempodiz*. Antza, den-
boraren alegoria bat irudikatzen dute,
zer den han denboraren joana, eta zer
hemen. Dantzak horren gainean duen
boterea ekarri nahi dute plazara. Ez da
gustatu ez zaidanik, ulertu nahi eta ezin
horrek oztopatu dit behar bezala go-
zatzea. Agian horrenbeste tematu naiz
ulertzen zeri begira ari ziren haiek, zeri
ari ginen gu begira, eta ihes egin digu
denborak konturatzerako. ●

Anna Jeremias

PSIKOLOGOA ETA
GIZARTE HEZITZAILEA



ASKOTARIKO GORPUZKEREN ALDARRIA

“Hautzarroan konplexutasun handiko testuinguruetan bizi ziren lagunen errealitateak ezagutu nituen bertatik bertara. Gerora, hainbat komunitateetako proiektuetan parte hartu nuen, bazterrean bizi diren pertsonekin, arrazismoaren, kapazitismoaren eta matxismoaren biktimekin. Formakuntza eta prozesu terapeutiko ugaritan murgildu naiz, eta horien bitartez besarkatu ahal izan ditut nire azalean bizitako indarkeriak. Bide horri esker, azken urteetan Magranes kooperatiban lan egin ahal izan dut”.

“Kezkagarria da 8 urteko neskatilen lehentasuna argaltzea izatea”

Anna Jeremias (Castellcir, Herrialde Katalanak, 1976) psikologoa, gizarte hezitzailea eta Magranes kooperatiba feministako kidea da. Kataluniako Generalitateko Berdintasun eta Feminismoen Sailaren babesarekin, eskoletako lodifobiaren kontrako gida publikatu berri dute.

 SAIOA BALEZTENA  LAIA RAMIRO

Zer da lodifobia?

Lodi izate hutsagatik pertsonak pairatzen duten indarkeria forma bat da. Mendebaldeko gizarteetan nagusi da zapalketa sistema hori, berteze bereizkeriekin batera, hala nola arrazakera, homofobia edota kapazitismoa. Zapalketa sistema horren bitartez, sistematikoki eta automatikoki, gure gorpuzkera lodien kontrako ekintza diskriminatzaileak errepikatzen dira behin eta berriz.

Noiz eta nola murgildu zinen lodifobiaren kontrako aktibismoan?

Lodia naizelako eta jazarri naute-lako murgildu nintzen borrokan. Nigan diskriminazio eta indarkeria desberdinek ireki zuten zauria miatzen hasi nintzen lehenik, eta ondoren, orbanaren gainean dantza eginez, ahalduntzeko bidelagunik onenak topatuta egin dut borroka.

Nola eragiten du lodifobiak eskoletan?

Tankera fisikoarengatik inposatzen den diskriminazioa, arrazismoare-

kin batera, eskoletan pisu gehien duen bereizkeria forma da, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen arabera. Abiapuntu horretatik, haur eta nerabeei lodifobiak lotsa eta bere gorpuzkarekiko atsekabea eragiten die, eta horrek sarri depresioa, isolamendua eta esklusioa dakar. Zenbaitean, gainera, elikadura-portaeraren nahasmendua izaten dute anitzek.

Anorexia eta Bulimiaren Kontrako Elkartearen arabera, 12 eta 16 urte bitartekoen %42ak ingurukoak irainak jaso ditu. Psikoterapeuta eta gizarte hezitzaile gisa, zer deritzozu?

Kezkatzen nau, baina ez nituzke hainbertze haur eta nerabe azpimarratuko. Hipokritak gara, eta haur eta nerabeak nabarmendu ohi ditugu, eurak helduon munduaren isla direla ahantzita. Eta, funtsean, begirada helduzentrista berrikusi behar dela uste dut. Komunikabideetan, familian eta eskolan egiten dugun artatzearen berrikusketa horretatik abiatuta, indarkeria es-



"Gizarte gisa berrikusi beharko genuke zer den 'osasuntsu' egotearekin ulertzen duguna".

tetikoa bezalako errealitate konplexuak baimentzen ditugula onartu beharko genuke.

Elkarte berak dio irain horien %76ak itxura fisikoagatik edo lodia izateagatik egiten direla. Eta ez hori bakarrik: haurren %34ak dietaren bat egin du argaltzeko helburuz.

Dietaren kultura gure arreta behar duen hiru buruko munstroa da. Gorputz normatiboak izateko haurrek ulertzen badute murrizketa eta baraua ezinbertzekoak direla, euren osasun integrala arriskuan jarriko dute. Hagitz kezkarria da, adibidez, 8 urteko neskatilek euren gorputzak eraldatzeko desioa izan eta argaltzea izatea euren lehentasuna. Gizarte gisa ezinbertzekoa da berrikustea zer den *osasuntsu* terminoarekin ulertzen duguna, zer den "osasuntsu egotea"; ikuspegi integratzaileago bat landu behar dugu.

Sare sozialek ez dute gehiegi laguntzen horretan.

Sare sozialek lortzen dutena da guztiok pentsatu eta sentitzen dugula geure gorputza erakusleho bat dela, eta existitzen dela bakarrik bertzeek miretsia izateko. Pertsona lodientzako, beraz, lodi izatea ongi ez dagoenez, zure gorputza aldatu behar duzula oroitarazten dizuten mezu biolentoen hipermasifikazio bat dira sareak. Hori bai, garrantzitsua da azpimarratzea, lodien aktibismoari esker, sare sozialetan agertu dela orain arte ez zegoen gorputz desberdinen irudikapena, ezinbertzekoa dena. Hori ospatzeko modukoa da.

Nola borrokatu daiteke eskoletatik lodifobiaren kontra?

Lehenik eta behin, arazoa identifikatu eta ardura hartuta. Eta, jakina, geure jokabidea berrikusita. Adibidez, geure praktika hezitzailean gizartean dauden



desberdintasunak eraldatu edo errepi-katzen ari garen aztertuta. Irakasleoi dagokigunez, garrantzitsua da diskurtso normatibo eta lodifobikoa desagiteko dugun arduraz kontzientzia hartzea.

Horretaz aparte, lodifobia identifikatu eta espazio inklusiboak sortu behar dira, prebentzioa egin, formatu eta gorputz guztiak kontutan hartzen dituzten egitasmoak antolatu behar dira, eskole-tako materialak berrikusi eta elikadura heziketa oinarritu beharko litzateke elikaduraren ikuspegitik eta ez lodifobikotik. Azkenik, osasun integrala sustatu eta gorputzaren eta autoestimuaeren inguruan solastatzeko espazioak ere bultzatu beharko liriateke.

Gida hau erditu duzue Kataluniako Generalitateko Berdintasun eta Feminismoen Sailaren babesarekin. Zer deritzozu lodifobiaren kontra dauden politika publikoen inguruan?

Indarkeria estetikoaren kontrako bultzada marko bat dago gaur egun, baina oraindik ere baliabide gutti daude lodifobiaren kontra. Horregatik, funtsezkoa da honen inguruko gogoeta sakona egitea. Adibidez, kezkarria iruditzen zait Kataluniako Osasun Publikoaren Agentziak Haurren Obesitatearen Kontrako Plana sustatu izana, egitasmo estigmatizatzailea baita, izan ere, bere abiapuntutik haur eta nerabeen lodifobia estigmatizatzen du. ●

Uda zikin bateko oharrak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Orange telefono konpainiako goi kargu batek Vox-i botoa emango diola esplikatzan du mikrofono aurrean. Den-dena gustatzen omen zaio: “Legez kanpoko immigranteak zakutik hartzera, adingabeen abortuak kanpora... zer gehiago kanpora? A, okupa puta horiek”. Gustatuko zaio Virginia Woolfen *Orlando* nobelan oinarritutako antzezlan eta Pixar estudioen *Lightyear* umeentzako pelikula zentsuratzea ere, bietan lesbianak agertzen direlako. Espainiako udalerrri banatan egin dute jada. Leku gehiagotan ere aurki, asuntuaren arduraren noren esku geratzen ari den ikusita. Berriki Valentziako kultura kontseilari izendatu duten politikariak bere zaldia-ri zer izen jarri ez zekiela azaldu zuen sareetan, lau aukeraren artean zalan-tzan zegoela: Viriato, Caudillo, Escipión edo Duce. Ezin jakin zein hautatu zuen azkenean, baina haren gainean zamal-katzen den bitartean birika betean kan-tatu ahalko ditu maite dituen koplak, berme legal guztiekin: uztailearen 23ko bozetarako spot batean *Cara al sol* era-biltzea libre dela ebatzi du Espainiako Hauteskunde Batzordeak. Gertu sumatzen duten garaipenaz hordituta, piper-potoko oilasko frankistaren ipurdia be-zala daukate azala askok azkenaldian, ezagun dute Iruñeko Sanferminetako lehenbiziko zezenketan “¡Que te vote Txapote!” kantatzen dutelarik. Eslogan sinpleak, etsaiaren kontrako oinarritzko emozioak, negar egiteraino hunkitu zen Mediaseteko kazetari harena bezala: Silvio Berlusconiaren hileta-elizkizunaren berri ematen ari zela, Milango Piazza del Duomon bildutako samalda saltoka eta oihuka hasi zen, “chi non salta comunista è!”. Eta milaka ikus-entzuleren



Polizia frantses bat su emandako auto baten ondoan, Nahel Merzouken hilketaren ondoren izandako istiluetan.

aurrean, ezin begietako isuriari eutsi –profesionaltasunari eustea dagoeneko gehiegi eskatzea da–.

Dena ez baita zezenetako mozkorra eta malko sentitua izango, festa zertarako den gogorarazten duen ohar bat: “Horda salbai horien aurrean, lasaitasuna eskatzea ez da nahiko, inposatu egin behar da!”. Frantziako polizian 30.000 afiliatu dauzkan Alliance Police Nationale elkarteak ekain amaieran publikatu du, Nahel Merzouken hilketaren ondoren izan diren istiluen harira: “Gaur poliziak borrokan ari dira gerran gaudelako” –poliziak borrokan? Beste nonbait ere entzun dut kantziño hori...-. Batzuk soldatapean tiroka, besteak isil-isilik kausa finantzatzen: milioi bat euro baino gehiago bildu dute

Nanterreko gaztea hil duen agentearen aldeko *crowdfunding*-ean. Azken asteetan Frantziako hirietan izan diren kale borroketan talde eskuadristak azaldu dira, makilekin jende ehizan. Sorrian horrelako banda baten jipoia jasan ondoren koman geratu zen donostiar bat maiatzaren amaieran –poliziak babestuta aldendu ziren lekutik erasotzaileak-. Pasa den astean Barakaldon ozta-ozta libratu zen militante politikoa bat labanaz sastakatuta hiltzetik, motozale supremazista batek “akabatuko haut, marikoi puta hori” oihukatu ondoren bere kontra ekin zuenean –epaileak libre utzi du erasotzailea–.

Izerdi toxikoa dario uda honi. Eta ez dakit, bestelako kalkuluetan murgilduta, usaina ondo hartu ote diogun oraindik. ●

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatze eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

CLIMA IDEAL

UDAKO KARTELAK ERAKUSKETA

2023.07.01–2023.10.15

SAN TELMO
MUSEOA

Estudio Lanzagorta

© Rafael Penagos, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2023



ANTOLATZAILEAK

STM

San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

ERAKUNDE BABELSEAK

